

SARRERA

1- **Jakintza**

“Mundua absurdoa da”

Erudito ≠ Sabio



Lehentasunak →

- Lapikoa
 - Harea
 - Garagardoa (lagunak)

2- **Zientzia**

Gizarte zientziak → beste zientziak objektibotzat. Zergatik?

Gizarte zientziak zailak dira objektibizatzen, gizartea bera aldakorra delako. Horrela, **legitimitatearen** arabera erabakitzen da zer kontsideratu eta zer ez.

- Metodoa
- Hipotesien kontrastea

Horrela, momentu historiko jakin batetan jakintsutzat ditugunok erabakitzen dute zer den objektiboa eta zer ez.

3- Zientziek → **Prozesuak** ikasten dituzte.

Horrela, urratsak aztertzen dituzte (ez dira aztergai estatikoak). Hasiera bat dute eta helburu batera bideratzen dira.

4- **Globalizazioa**

Prozesu bat zen, beraz; ez estatikoa. Ondorioz, horren ikasketa hurbilketa bidez burutu behar da (aprendizaje por aproximación).

Ezagutzak dialektikoa izan behar du. Prozesu bat denez era berean delako:

- Gauza bat: umea
- Aurkakoa: heldua

5- **Sistema**

Sistema elkarreraginak sortzen du → Ordena, logika (ez agian logika egokia)

OINARRIZKO KONTZEPTUAK

1.GAIA: ESTATUA

ZER DA ESTATUA?

Estatuaren sorrera:

- Boterea
- Gobernua
- Legegilea
- Subiranoa
- Ordena
- Prozesua
- Legea

Botere tresnak

- Indarra
- Jakintza
- Interesak (gatazkatsu)
- Ohiturak

Gaur egun ezagutzen dugun estatu mota (Estatu Modernoa), nahiko modernoa da. Izan ere, XVI.mendean hasi ziren horrelakoak sortzen. Estatuak gauza artifiziala dira, dinamikoak, etengabeko prozesua alegia.

Estatuen sorrera:

Cromagnon garaian ez dago gizartea antolatzen duen araurik, guztia instintiboki antolatzen da. Ordea, sedentarismoarekin batera eta baliabideen mugagabetasuna dela (jabegoarekin erlazionatzen da) eta gatazkak sortzen dira eta arauen beharra sortzen da. Horren ondorio gisa, antolaketa egituratuago bat sortzen da ohituretatik legeak sortzen. Honekin batera boterea sortzen da; hasieran, indarraren, prestigioaren eta abarren arabera sortu zena. Denborak aurrera egin ahala, boterea geroz eta antolatuagoa dago eta bere berezkotasun edo espontaneotasuna galtzen du. Denbora honetan zehar estatuak forma ezberdinak izan dituzte (hiri estatuak, erresumak eta inperioak).

Erdi Aroa adibidetzat hartuta, ikus dezakegu boterea ez zegoela guk ezagutzen dugun eran antolatuta. Izan ere, boterea ez zegoen kontzentratuta (Erregea, noblezia, eliza eta beste hainbaten banatuta baizik).

Estatu Modernoa

Denbora pasa ahala, boterea esku bakarrean kontzentratzeko joera gailenduko da; hots, erregearen eskuetan. Horrela sortuko dira, XVI.mendean, lehen estatu modernoak.

Boterearen kontzentratzeko prozesu horretan bi gauzek izango dute garrantzia:

- Ejertzitoaren unifikazioa. Ordura arte milizia ezberdin asko zegoen arren, orain ejertzito profesional egonkorra sortuko da.
- Burokrazia: estatu modernoaren sorrerarekin botere intermediario guztiak (aristokrazia) galdu eta botere egonkor eta oso indartsu baten eredia sendotuko da. Horren inguruan burokrazia eta administrazio zabal bat sortuko da, zeinak botere hori are gehiago sendotuko duen.

Burokrazia hori gobernuaren inguruan antolatzen da. Hasiera batean, gobernuaren erregearen kontseilari taldea zen. Ordea, denborarekin garatu eta burokraziaren antolamendu maila gorena izango da gobernuaren.

Gobernuak antolamendu piramidala izango du, zeinen buru muturra izango den (ministro bat, adibidez).

Antzina = sinesmenak → ohiturak → legeak

Gaur egun = legeak → ohiturak

Bi estatu mota:

Estatu guztien joera boterearen kontzentrazioa izan den arren, prozesu hori ez da era berdinean eman eta ondorioz munduaren historian zehar *bi estatu mota* izan dira:

- Estatu zentralistak: botere guztia kontzentratzen da, eta estatua eta biztanleriaren arteko botere intermediario guztiak ezabatzen dira.
- Ez zentralistak: besteak beste, federatuak. Unifikazio prozesua ez da amaituko eta botere batzuk mantendu egingo dira.

Estatuaren osagaiak:

Kontuan izan behar da estatua ez dela gauza naturala, artifiziala dela baizik, gizakiak sortua baita. Era berean, aipagarria da estatuaren osagarri guztiak ez dituenari “erdiestatu” dei dakiokela.

1. Biztanleria edo populazioa; gutxi gora behera egonkor edo sedentarioa (ez nomada).
2. Lurraldea: populazioa kokatuko den lur eremua. Honek mugak sortuko ditu eta arazoak eragin ditzake.
 - Muga horiekin aduanak datoz eta zergak estatu barruan ere egotetik soilik muga horietan egotera igarotzen dira. (Izan ere, oroitu, antzina aduanak zeuden estatu barruan erregeak jarriak edo elizaren diezmoak). Muga horiek merkatuaren mugekin bat egingo dute. Horrela, estatua merkatuaren antolamendu espazioa izango da.
 - Egon daiteke estatu bat lurralderik gabe? Erdiestatuak lirakeke. Adibidez Palestina (lehen) eta Sahara.
3. Boterea: abstrakzio bat da, definitzeko zailagoa. Pertsona batek duen gaitasuna, beste batek berak nahi duena egin dezan eragitekoa. Boterearen tresnak:
 - Indarra eta honekin erlazionatu daitekeen beldurra

- Jakintza edo arrazoa
- Aberastasuna, dirua (helburuak lortzera bideratu daitekeelako)

Badaude modu inkontziente baten baliatzen diren botereak ere:

- Genero eta arraza
- Adina
- Orientazio sexuala
- Itxura fisikoa: gizarteak dituen balorazioaren baitako itxura fisiko "onak" izateak erraztasun ugari eman dezake.
- Osasuna
- Karisma: erakartzeko gaitasuna

Botere politikoa honela inposatzen da:

- Indarraren arabera: indarraren erabileraren mehatxua (\neq indarraren erabilera). Gaur egun, orokorrean indarra gehiegi baliatu gabe inposatzen da botere politikoa. Estatu ororen helburu da, gizarte garatuetan, indarra ahalik eta gutxien baliatzea. Estatu orok du helburutzat gizartearen indarraren erabileraren monopolioa izatea. Era berean indarraren erabileraren legitimitatea monopolizatua izatea ere nahi du estatuak. Horrela legitimitatea ematen zaio pertsonak eta gainontzekoen indar fisikoa baliatu ahal ez izateari. Gaur egun ideologia ororen helburua da indar hori murriztea estatuaren mendera. (Anarkismoan salbu, hemen legeen deuseztapenarekin batera indarraren deuseztapena helduko bailitzateke).
- Kotsentsu arabera

Botereak gehiagorako joera du, boterea duenak botere gehiago nahiko du. Kontraesankorra dirudien arren eta bere helburu boterearen kontzentrazioa den arren.

Noiz murrizten da boterea?

Beste botere batekin alderatzen denean.

Boterea = botere ofiziala + kontraboterea

- Kontraboterea: kontraboterea handiagoa izanda, botere ofiziala txikiagoa. Gizarte zibil antolatua osatzen du (antolatuta bakarka baino indar handiagoa dugu); elkarte feminista, ekologista, sindikatu, eta erakunde anitzek; baita multinazional, ehiztarien elkarte eta beste asko. Izan ere, kontrabotereak botere ofizialaren ideologiarekin bat edo aurka egin daitezke.

NAZIOA:

Zer da nazioa?

Ezaugarri batzuk komunean dituen giza taldea

- Hizkuntza
- Kultura
- Historia
- Ekonomia
- Lurra
- Norberak sentitzen duena

Posible al da nazioari mugak jartzea? Euskal Herritik at, Alemania adibidetzat hartuta.

Nazioa konstrukzio sozial bat da eta, horrela, adiera asko ditu: esanahia testuinguruaren, hizkuntzaren, erabiltzailearen eta abarren arabera da. Ezinezkoa da nazioa era objektiboan definitzea.

Esan genezake nazioarekiko baldintzapen faktikoak eta aukerak daudela.

Nazio hitza → *Nacer* hitzetik dator eta jaioterriari egiten dio erreferentzia. Ordea, hori ere zaila da objektibatzen. Materiala da etxean jaiotzea, nazioa ordea abstrakzioa da.

Historikoki, guk gaur egun baliatzen dugun Nazio ideia Frantziar Iraultzarekin batera sortu zen.

Gaur egun, jaioterriaren ideia eta estatuaren ideia lotzen dituen adiera ematen diogu; hots, gauza natural edo geografiko izatetik gauza politiko izatera igaro da.

Jaioterra eta estatua

Esan bezala gaur egun dugun nazioaren kontzeptua Frantziar Iraultzarekin sortu zen; hau da, pentsamendu demokratikoarekin. Pentsamendu demokratiko hori izango da nazioari gaur egungo esanahia eman ziona. Ordura arte, hainbat adiera zituen. Lehen, izan zitekeen pertsona bat jauntxo baten eta errege baten mende egotea. Gaur egun ordea, lurraldearekin lotuta egoteko joera dugu; horrela, nazioaren ideia ideia modernoa da.

Nazioaren ideia lurraldearen eta botere politikoaren baturarekin batera sortu zen.

Demokraziak duen arazo nagusietako bat da hori; izan ere, bere jaiotzatik lotuta egon da estatu-nazioaren ideiarekin.

Adibidez, AEBtako Independentzia edo Frantziako Iraultza lurralde jakin batetan eman ziren, ez zen iraultza “internazionalista” izan, “nazionalista” baizik.

Horrek, asko baldintzatzen du demokrazia, bere sorrera beretik, espazio geografiko zehatz batekin eta estatu-nazio ideiarekin erlazionatuta egoteak alegia.

Hau da, demokrazia ematen den neurrian, tokian tokikoa ematen da. Ez da demokrazia unibertsal edo globala ematen. Hau da, horrela, demokraziaren ideia ez da ideia unibertsal edo orokorra.

Zein lurralde esparru izan zuten iraultza hauek?

- Frantziakoa

Frantziako iraultza momentu historiko horretan dituen mugen barruan eman zen

Ondorioz, demokrazia alde aurretikako mugekin sortzen da. Muga horiek erresumarenak dira. Erresuma, azken finean, errege edo soberanoaren mende zeuden lurraldez osatuta dago. Iraultzak, errege baten mende zegoen erresuma izatetik nazio izatera igaroko du Frantzia.

Horrela, uler daiteke nazio modernoa alde aurretikako mugen barruan sortzen dela. Hau da, alde aurretikako mugek zehazten duten jendea definitzeko.

Horrez gain, frantziar iraultzan sortu zen *subiranotasun nazionala*. Nazioa da aurretik zeuden mugen barruan bizi den jendeak eratutako eremua eta hauek hartutako erabakiei deituko zaie subiranotasun nazionala.

- Ameriketakoa

Ameriketako independentzia ez zen sortu alde aurretik zegoen lurralde batetik abiatuta; bai ordea independizatutako kolonietatik abiatuta: hots, Erregeak Ipar Ameriketara zituen kolonietako subditoek osatuko dute demokrazia hori.

Aipatutakoari “*estatu nazioaren*” ideia deritzo. Honek zera planteatzen du:

Nazioa osatzen dute estatua osatzen duten pertsona guztiek.

Estatua → Nazioa

Are gehiago, hortik abiatuta, iraultzaren xedea gizarte demokratiko eta berdinago bat sortzea denez (pribilejio estamentalik gabe eta lege berdintasunarekin), estatua gizarte uniforme bat eratzen saiatuko da bere mugen barruan.

Halere, aipagarria da gaur egun baliatzen dugun *nazio* kontzeptua ez dela erdi arokoa, ez dela antzinakoa. Aitzitik, kontzeptu modernoak baliatzen dugu, zeinak biztanleria botere politikoarekin lotzen duen.

Estatu nazioa **XIX.mendean**

XIX.mendea Erromantizismoaren garaia izan zen; hots, Erromantizismo izeneko mugimendu kulturala eman zen.

Garai horretan, batez ere Alemania inguruan, *nazio* kontzeptuaren beste ideia bat sortu zen (Frantziarren ideiarekin aurkakoa dirudien arren, funtsean oinarri bera dute).

Horrela Nazionalismo Erromantikoa sortuko da, Europako beste lurralde askotara hedatuko dena. Honek estatu-nazio bikotea birplanteatzen du, baina alderantziz hartuta; hots:

Nazioa da objektibizatu daitekeena: nazioa dena estatu bihurtu behar da; eta ez estatua dena nazio bihurtu.

Nazioa → Estatua

Halere, eta Frantziar pertzepzioarekin duen itxurazko aurkakotasunera itzuliaz, helburu edo oinarri berbera duela azpimarratu behar da. Hots, Estatu = Nazio ekuazioa hautsi ezina da kasu bietan.

Estatua = Nazioa

- Esan bezala, beraz, bi nazionalismo mota horietan planteatzen da nazioa eta estatuaren arteko harremana. Gainera, bietan ulertzen da estatu batean nazio bakarra soilik bizi daitekeela; hots, estatua *mononazionala* dela onartzen da.
- Gainera, bi nazionalismo "kontrajarrientzat" estatua homogeneoa izatea da helburua.

Ordea, hori ez da hala ematen. Esan genezake Portugal eta Irlanda direla estatu mononazional bakarrak. Gainontzean, Europan bezala, ezetz esan genezake.

Are gehiago, munduko leku askotan aurkakoa gertatzen da: ezaugarri identitarioak berdin-berdin ematen badira ere, estatu ezberdinak osatzen dira (Hego Ameriketako kasua da). Hau horrela ematen da bilakaera historikoak horrela eragin duelako.

Nazio bakoitza ideia batetan oinarritzen da. Horrela, esan genezake:

- Estatua duten nazioek, Frantziar jatorriko estatu-nazioaren ideia hartzen dute.
- Nazionalismo azpiestatuek, ordea (Euskal nazionalismoa adibidez), Alemanian sortutako nazionalismo erromantikoa hartzen dute oinarri.

SUBIRANOTASUN NAZIONALA:

Esan bezala, Frantziar Iraultzan sortutako ideia da. *Subiranotasun* kontzeptuak soberanoari (iraultza aurretikako Erregeari) egiten dio erreferentzia. Horrela, *subiranotasun nazionalak* antzina soberanoarena zena nazioarentzat izatea aldarrikatzen du.

Subiranotasuna, beraz, baldintzapen historikoarekin sortzen da.

Izan ere, nazioak aginduko duenez, beharrezkoa da nazioa nork osatzen duen eta nork ez argitzea. Herria izango baita soberanoa.

Adibidea: azterketa zein egunetan egin nahi den adostea. Herriaren hitzaren arabera 39k nahi dute ostegunean (boto gehien lortu dituen eguna izan da). Ordea, gainontzeko 61k ez du azterketa ostegunean egin nahi. Argi geratzen da demokraziaren konplexutasuna.

Bigarren bozketa baten, aurreko bozketan boto gehien lortu dituzten bi emaitzen artean bozkatuko da. Asteartea edo osteguna? Aurretik astearteak ostegunak baina bozka gutxiago zituen; orain, ordea, boto gehiago ditu.

Bi bozketak demokratikoak dira, bigarrena demokratikoagoa ordea. Demokratikoena denon adostasuna litzateke.

Subiranotasun nazionala herriaren hitzean oinarritzen dela esaten den arren, kontutan hartu beharrezkoa da herriak ez duela “hitz bakarra”, “hitz ugari eta ezberdinak” dituela baizik. Ezberdintasun eta kontraesan horien baitan, demokraziak zenbateko kontsentsua sortzen den neurtzen du. Horrela, ideia honek huts egiten du ez duelako aintzat hartzen beti egongo dela baten bat desados, eta hori ere herriaren parte dela.

Demokrazia = kontsentsua + distsentsua (*desadostasuna)

Subiranotasun nazionala Rousseauk sortutako *borondate orokorra (voluntad general)* deituriko ideian oinarritzen da. Rousseuren utopia:

“Pertsona guztiak libre eta berdinak jaiotzen gara”

Jean Jacques Rousseau (1712/1778)

Suitzar idazle, musikagile eta filosofoa izan zen, frantsesez idatzi zuena. Ilustrazioko pentsalari nagusienetako bat izan zen. Haren lanik ezagunenak Gizarte-Hitzarmena, Aitorpenak eta Emilio edo Hezkuntzaren gainean dira.

Oso filosofo berezia izan zen bere garaian, haizearen aurka joan zena eta maiz kritikatu izan zena bere ideietatik. Ilustrazio garaiko baikortasun eta aurrerabide giroan, gizartea, aurrerapena, arteak eta zientziak kritikatu eta mespretxatu zituen hark, gizakiaren ustelkeria eta gaitz ororen iturri zirela ondorioztatuz. Horrela, erromantizismoaren aitzindaritzat hartzen da, arrazoiaren aurrean sentimenduen garrantzia azpimarratzen duen korrontearena, hain zuzen ere.

- Ordea, zer da libre izatea?

- Rousseuren esanetan, norberak bakoitzari dagozkion erabakiak hartzean datza libre izateak.
- Ordea, denoi eragiten diguten erabakiak taldeak hartuko ditu. Gizarte ituna sortuko litzateke kasu honetan, gizarte kolektiboaren ideiatik abiatuta.
- Esan genezake era honetan ez dela askatasunik galtzen: erabaki guztiak hartzen ditu norberak; batzuetan era indibidualean eta bestetuetan kolektiboan:

Era kolektibo horri deritzo *borondate orokorra*. Indibiduoaren borondatea borondate kolektiboan integratzean datza.

Zorakeriatzat jo genezake ez baita buru kolektiborik existitzen, eta herriak ez baitu hitz bakarra. Herritar bezainbeste hitz daude. Utopikoa da.

- Non dago norbanakoaren erabakien eta erabaki kolektiboen arteko muga? Non amaitzen da norbanakoaren espazioa?

Esparru pribatua eta esparru publikoa bereizten dira:

- Esparru pribatua: norberak. Oinarrizko eskubide edo giza eskubideetan oinarritzen dira. Ikuspegi honen arabera, giza eskubideak dira norbanakoaren babes.
- Esparru publikoa: kolektiboak. Anarkismo edo sozialismoarekin erlazionatu daiteke (errua jabetu pribatuari egozten dio).

ESTATU BERRIEN SORRERA:

Hemen *Nazioarteko Zuzenbideari* egin behar diogu erreferentzia. Zuzenbide pobre eta ahula da, garapen handirik gabea (estatu zuzenbidearekin alderatuta bederen).

Izan ere, estatu jakin bateko zuzenbidean indarraren erabileraren mehatxua dago lege ororen atzean. Nazioarteko zuzenbidearen baitan, ordea, ez dago indarraren mehatxu zehatzik, ez dago botere zehatzik bere erabakiak ezartzeko.

Izan ere, historian zehar, nazioarteko harremanak estatuen arteko gatazken ondorio izan dira. Nazioarteko Zuzenbideak, horrela, estatuen indarraren erabilerari mugak jarri nahi izan dizkio. Ordea, esan bezala, muga oso ahulak baliatu ditu.

Nazio Batuen Erakundeak (ONU) arau batzuk planteatzen ditu Nazioarteko Zuzenbidearen baitan. Arau horien oinarria:

- Mugen edo fronteren ukiezintasunaren printzipioa. Hots, estatu guztiak daude behartuta besteen mugak errespetatzera.
- Indarraren erabileraren debekua (printzipioz).

Nazioarteko Zuzenbide honetan, legitimitateak ez du indar handirik. Estatu bakoitzaren interesek eta faktizismoak indar handiagoa dute.

- Izan ere nazioarteko harremanetan erabaki faktikoak gailentzen dira; hots, de fakto gertatzen dena onartua izaten da epe luzera. Errealitatean inposatzen bada, denborarekin onartu eta legala bihurtuko da.
- Errekonozimendua: lurraldea zenbat eta gehiago kontrolatu, orduan eta errekkonozimendu handiagoa izango duzu eta egoera faktikoa indartuko da.

Estatu berriak sortzeko moduak:

- 1) *Borondatezkoa edo legala*: legeak errespetatuz eta indarraren erabilerarik gabekoa. Adibidez, Txekoslovakia.
- 2) *Indarraren erabileraren bidezkoa*: Gerra Zibilak, iraultzak ... Estatu baten mugak aldatzean datza, lurralde zati bat galdu edo irabazteko. Kasu honetan zailagoa da errekkonozimendua.
- 3) *Deskolonizazioa*
- 4) *Erdibidekoa, ez legala guztiz ezta indarkerian oinarritutakoa guztiz, erdi legala*: Ez da legean oinarritzen, baina ez du indarririk baliatzen. Estatu baten legalitatea baliatuz beste legalitate berri bat sortzean datza. Adibidez: Jugoslavia.

Autodeterminazio eskubidea:

Estatu berrien sorreran garrantzia berezia izan du. Ez dago zehazki definituta; teoriko batzuk teorizatutako eskubidea da.

Estatu-nazioaren ideian eta borondate orokorrean dago oinarrituta. Izan ere, bi horien arabera:

“Herriek euren errekurtsioak kontrolatu eta euren erakundeak izateko eskubidea dute”

Ordea, aipatzekoa da estatuek ez dutela autodeterminazio eskubidea onartzen; hots, nazioarteko legalitatearen ondorio izan ohi da.

- Izan ere, autodeterminazio eskubidea NBE/ONUren itun batzuetan dago oinarrituta (1966)
 - o Eskubide Zibil eta Politikoaren Ituna
 - o Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna

ONUK zehaztutako Autodeterminazio Eskubidearen esparrua herrialde kolonizatuak izan dira: metropoliarengandik independizatzeko eskubidea aitortu zaie koloniei hala. Horrelako kasuetan, aldebakartasunez independentzia aldarrikatzeko eskubidea dute koloniek.

Quebec-eko bidea (+praktika)

NBE/ONUren Autodeterminazio Eskubideak ez ditu aintzat hartzen estatuen barne arazoak.

Kanadako kasua dugu adibidetzat:

Historian lehen aldiz estatu demokratiko batean onartu zen bere baitako lurralde baten autodeterminazio eskubidea (konstituzioan adierazita ez zegoen arren). Horrela, Kanadako Auzitegi Gorenak epai bat egin zuen: “Estatu demokratiko plurinazional batetan, ez da existitzen lurralde bat modu unilaterial edo aldebakarreko baten askatzeko modurik. Ordea, printzipio demokratikoaren arabera, lurralde bateko biztanleriaren gehiengoak desadostasun garrantzitsuak baldin baditu herrialdearen status-arekin, aukera legalak eman behar zaizkio independentzia prozesu bat abiarazteko; beti ere baldintza jakin batzuei jarraiki.”

Horrelako kasuak negoziazio prozesu batean oinarritzen dira, eta bi aldeek onartzen dute galtzeko aukera.

2.GAIA: KONSTITUZIOA

ZER DA KONSTITUZIOA?

Lege edo arau BAT da (ez lege multzoa!). Lege gorena da, hots, beste legeen gain dago.

Legea = Agindua = Debekuak + Betebeharrak

Horrela:

- Zuzenean aplikagarria da
- Legeak indargabetu ditzake
 - o Zaharkitutakoak
 - o Kontra egiten diotenak ere

Lege gorena denez:

- Gainontzeko legeak laburbiltzen ditu
- Gainontzeko legeen interpretazioa honen arabera burutu behar da
- Gainontzeko legeek errespetatu beharko dute, ezingo dute konstituzioa aldatu

Lege politikoa ≠ teknikoa

Lege politiko bat da. Izan ere, lege orokorra da eta orokor izateak legea politikoa izatea dakar; zehaztasunak despolitizazioa (eta teknizismoa) dakar. Horrela, konstituzioak harreman politikoak antolatzen ditu.

Aipagarria da, dena den, hortik aurrera egingo diren legeak nola egin behar diren zehazten duela.

Hots, sistema politikoaren (erregimenaren) markoa osatzen du.

Konstituzioaren beharraren zergatia edo justifikazioa:

Rousseau:

Gizarte Ituna → Gizarte egoki bat abiapuntutzat hartuta, eta pertsonak libre eta berdin jaiotzen direla ulertuz gero; itun edo hitzarmen bat egingo lukete beren artean elkarbizitza arauak ezartzeko.

Bi baldintza:

- o Esparru pribatua: norberak hartu beharreko erabakiak, askatasunez.

- Esparru publikoa: kolektiboak hartu beharrekoak, borondate orokorrak.

KONSTITUZIOAREN EDUKIAK:

Zer dago idatzita bertan?

Gutxieneko edukiak

1. Oinarrizko eskubideak: gizabanakoa besteengandik babesten dute
2. Oinarrizko betebeharrak
3. Estatuaren forma
4. Boterearen antolaketa: boterearen kontzentrazioa ekidite aldera egiten da hau eta, orokorrean, pentsamendu demokratikoaren arabera (Montesquieu).
 - Absolutismoan boterea arbitrarioa zen
 - Demokrazian edo zuzenbide estatuan, erabakiak araututa daude
 - Legeak egin, legegilea: parlamentua
 - Legeak betearazi, betearazlea: gobernu
 - Epaitu, judiziala: auzitegiek

Beste eduki batzuk

5. Lurralde banaketa edo antolaketa
6. Eredu sozioekonomikoa: gizartea arautzen du
 - Estatu liberaletan ez zaio aipamenik egiten orokorrean, ez baitagokio estatuari ekonomia bideratzea (gogoratu jabetza pribatuaren eskubidea dela ekonomia antolatzen duena, hots, enpresa askatasuna). Kasu hauetan jabetza bera da konstituzioak arautzen duena.
 - Estatu sozialean, ordea, konstituzio ekonomia deiturikoa sortzen da. Izan ere, kasu honetan, estatua ez da ekonomiarekiko neutroa eta bere ardura da sistema ekonomikoa bideratzea.
7. Sinbologia: estatuaren izena, hiriburua, bandera eta abar

KONSTITUZIO FORMALA ETA KONSTITUZIO MATERIALA

- Konstituzio formala: idatzita dagoen konstituzioa, estatuaren funtzionamendua adierazten duen dokumentua.
- Konstituzio materiala: konstituzio formala errealitatera ekarrita praktikan jartzean datza. Estatu baten errealitate konstituzionala. Honek definitzen du nolakoak diren botere harremanak estatu batean (botere eta kontraboterearen harremana, alegia).

Konstituzio formalak materiala baldintzatzen du, eta alderantziz. Beti izaten da distantzia bat idatziaren eta errealitatearen artean.

BOTEREA ETA GIZARTEA ESTATU LIBERALEAN ETA ESTATU SOZIALEAN

3.GAIA: KONSTITUZIO LIBERALA: BOTEREAREN ANTOLAKETA, GIZARTEAREN ANTOLAKETA, GIZABANAKOAREN EGOERA ETA ESKUBIDEAK

ESTATU LIBERALA

Teoriez aparte, fenomeno historiko bat da. Hau absolutismoaren aurkako erreakzio gisa sortu zen.

- Erregimen absolutistan:
 - Boterea: Absolutua + zentralizatua, mugagabea
 - Gizartea: Estamentala
- Liberalismoan:
 - Boterea mugatua, erabakiak arautuak; Frantziar Iraultzak “amaitu da gizonen gobernua eta legeen gobernua hasi da” + botere banaketa (3 erakunde ezberdinetan), botere-kontrabotere sistema bat sortzeko.
 - Gizartea: aniztasuna, egia bakarra ez denaren onarpena.

Sarrera

Munduan beti funtzionatu izan da batasunean; hots, pentsamendu bakarra jo ohi da zilegi edo egokitza, gainontzekoak okertza joaz.

Ordea, *antzinako Grezian*, filosofiaren sorrerak kolokan jarri zuen joera hori. Izan ere, gauza oro zalantzan jarri eta egiarekiko zegoen ikuspuntua kuestionatzeari ekin zitzaion.

- Zalantza aniztasunarekin erlazionatzen da; horrela, Greziar filosofian (antzinako Grezian) sortzen da lehen aldiz aniztasuna. Orduan onartu zen egia ezberdina izan zitekeela pertsona ezberdinentzat.

Greziaren erorketaren ostean, eta bereziki *Erdi Aroko* erlijioaren indartzea dela eta, berriro ere aurreko pentsamendua nagusitu zen.

Aitzitik, mendeak pasa ahala, *ilustrazio mugimenduaren* iristearekin batera, berriz planteatuko da Europan egiari buruz Grezian planteatutakoa.

Ilustrazio mugimendua eta demokrazia

Esan bezala, ilustrazio mugimenduak birplanteatu egiten du egiarekin erlazionatutako aniztasunaren afera.

- Aniztasuna, pentsamendu demokratikorako alde aurretikako baldintza da.
 - o Aniztasuna izan daiteke demokraziarik gabe, ordea, aniztasunik gabe demokraziarik ez.
 - o Pentsamendua bakarra baldin bada (hots, aniztasunik ez bada) ez da demokraziaren beharrik. Aski da arrazoia aplikatzea.

Oro har, demokrazia *gehiengoarekin* erlazionatzen dugu. Ordea, horren aurretik dugu aniztasuna, zeina *gutxiengoarekin* erlazionatzen baiten, gutxiengoen onarpenarekin, disidentzia edo diskrepantziarekin.

- Hots, gutxiengo hori izango da ilustrazioan aniztasuna sortu eta demokraziaren aurrekarien oinarriak ezarriko dituen.

Demokraziaren ideia beranduago teorizatzen den arren, liberalismo politikoa aipatutako disidentzia horrekin erlazionatuta sortuko da. Hots, talde batzuk egia edo arrazoi orokorrarekin bat ez egitea onartzearekin batera.

Liberalismoaren sorrera

Nola sortzen da liberalismoa? Zerren ondorioz? Zein dira lehen liberalak eta zein esparrutan ematen da?

Lehen disidentzia erlijioaren munduaren baitan sortu zen, XVII.mendean; horrela, lehen disidenteek eliza katolikoaren autoritate edo dogma ukatu zuten: mugimendu protestanteak sortu eta eliza zein Aita Santuaren boterearen aurka jo zuten.

Hereje zeritzen horiei eta jende asko izan zen eraila hereje izatea leporatuta.

Disidentzia erlijioso horretatik abiatutako lehen liberalismoa, gainontzeko esparruetara zabaldu zen esparru politikoraino helduaz.

Horrela, pertsona batzuk Erregearen absolutismoa kuestionatzeari ekin zioten.

Munduaren historian beti kontsideratu izan da agintzen duenak zerbaitengatik agintzen duela; ordea, una historiko horretan hori zalantzan jarri zen.

Laburbilduz, beraz, esan genezake testuinguru horretan sortu zela *liberalismo politikoa*, protestantismoari zuzenean erlazionatuta.

Zergatik da beharrezko aniztasuna edo horrek dakarren gutxiengoa eta disidentzia? Zergatik da gehiengoaren onarpena bezain garrantzitsua?

Idea hori hemen hain barneratuta ez dugun arren, herrialde Anglosaxoietan garrantzia handia ematen diote. Izan ere, pentsamendu bakarra balego ez litzateke borondate orokorraren arazoa planteatu ere egin beharko.

GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA ESTATU LIBERALEAN

Gizarte estametaletik → Gizarte klasistara

Liberalismoaren ailegatzearekin, antzinako erregimeneko gizarte estamentalak beste gizarte mota bati eman zion pasoa: *gizarte klasistari*.

Gizarte estametalean, arau ezberdinen arabera antolatzen ziren eta arau horiek ziren banaketa sortzen zutenak. Hots, arauak batzuentzat onuragarri eta besteentzat kaltegarri suerta zitezkeen, adibidez.

Gizarte klasistan, ordea, gizarte osoa berdina izango da araudiaren aurrean. Horrela, ezberdintasun bakarra geratuko da gizartearen barruan: ezberdintasun hori ez da araututakoa izango, ekonomiak, diruak edo kapitalak sortutakoa baizik.

- Ezberdintasun nagusia ez dator legiaziotik; aberastasuna (kapitalarekiko harremana) izango da botere iturri nagusia.

Gizarte klasistako klaseak

Jakina denez, gizarte klasistan herria bi klase nagusitan banatzen da; eta klase baten edo bestean integratzeak kapitalarekin duen harremana baldintzatzen du.

- a) Kapitala edo dirua duena, **burgesia**.
- b) Kapitalik ez duena, **proletalgoa** edo **langileria**.

Gizarte estametaletik → Gizarte klasistara

Zerk eragiten du gizarte estamental batetik klasistara igarotzea?

Baldintzen dialektika baten ondorio izan zen: alde batetik, eragina izan zuten aurrerapen teknologikoen gisako baldintza objektiboak. Bestalde, ideologia eta pentsamenduek ere izan zuten eragina.

- a) Ideologia eta pentsaerak
- b) Baldintza objektiboak:
 - Fabrikak:

Gizarte estametalean ekonomia lurren erabileran oinarritzen zen nagusiki, nekazaritza eta abeltzaintza bezalako jardueretan alegia (artisansak ere baziren arren). Ordea, fabriken sorrerarekin egoera hori aldatu egin zen: aurretik eskulangile edo menester zirenak fabriketako langile izatera igaro ziren. Horrela, fabrika eta produkzio masiboan oinarritutako sistema berri bat sortu zen (nekazaritza eta abeltzaintza desagertu ez ziren arren).

Ordura arte langileek banaka egiten zuten lan. Ordea, fabriken sorrerak langileak batu egin zituen.

Industriak garrantzia nabarmena hartu zuen horrela, nahiz eta aipagarria den industrializazio prozesua ez zela osorik eman leku guztietan eta ez zela era berean garatu.

Sortu zen sistema klasistarekin bat egiten duen ekonomia *Kapitalismoa* da

Kapitalismoa = produkzio sistema bat ≠ teoria bat

Egia da kapitalismoa ideologia jakin batekin erlazionatzen dela; halere, ezin da bete bete teoria bat. Ideologia jakin hori baliatzen da produkzio sistema honen justifikazio lez.

Kapitalismoa ≠ Merkatua ≠ Liberalismoa

Horien arteko ekibalentzia sinplifikazio bat da, akatsa.

- Kapitalismoa ≠ liberalismo ekonomikoa. Ekonomia liberala bere utopiatzat du justifikazio.
- Kapitalismoan ≠ merkatua. Merkatua beti existitu da (Egiptoko trukeak). Gainera merkatu ekonomia librea (kapitalismoak proposatutakoa) ez da inoiz existitu, teoria utopiko bat da, modelo intelektual bat.

KAPITALISMOA:

Zer EZ da?

- Kapitalismoa \neq merkatua: Merkatua beti existitu izan da. Merkatu ekonomia librea (kapitalismoak proposatutakoa) ez da inoiz existitu, teoria utopiko bat delako, modelo intelektual bat.
- Kapitalismoa \neq liberalismoa

Kapitalismoaren oinarriak

Kapitalismo kontzeptuarekin nahas gintezkeen arren, azpimarragarria da existitu egin dela.

Aro garaikidearekin (XIX.mendetik aurrera) erlazionatu beharko genukeen arren, aurrekariak izan zituen lehenago.

Kapitalismoak baditu merkatu mota guztiek ez dituzten ezaugarriak; hots, merkatu mota berezi bat da. Zein dira ezaugarri horiek? Zein dira kapitalismoaren oinarriak?

1. Enpresa kapitalista

Kapitalismoa baldintza baten ondorioz da posible: *enpresa kapitalistaren* ondorioz.

- Historian zehar, enpresa mota hori ez da beti existitu, salbuespen historikoa da.
 - o XX.mendearen aurretik beste enpresa mota asko izan zen, ordea, denak txikiak; eta oraintsu arte ez da enpresa handirik izan. Horrela, jabeagoak lur jabeei egiten zien erreferentzia eta aberastasuna lurraren jabetzarekin erlazionatzen zen.
 - o Gaur egun, ordea, zeharo aldatuta dago egoera hori. Lurren jabetzak ez du kasik ezer ematen ez badira enpresak sortzeko ustiapenera bideratzen.
- Aipatutako aldaketa hori lehen aipatutako enpresa kapitalisten sorreragatik izan zen (*sociedad anonima*S.A. edo *sociedad de responsabilidad limitada* izenez ere ezaguna).

Ezaugarriak:

- Akzioak
- Erantzukizun mugatua

Erantzukizun mugatuarekin enpresari batek merkatuan eta salerosketan parte har dezake, soilik bere akzioak arriskatuz. Hots, bere ondasun eta patrimonio guztia salbu geratzen da.

- Mugagabe irabaz dezake
- Akzioak soilik gal daitezke

Izan ere, antzina, zorrak izatekotan nola edo hala ordaindu behar zituzten enpresariak, beren ondasun oro baliatuz.

Esan bezala, *enpresa kapitalistak* salbuespen historikoa dira. Honekin, zuzenbideak erantzukizun osoa ez duen forma bat lortzen du.

- Zertarako?

Hasiera batean, helburua ez zen hau enpresa normalei aplikatzea, salbuespen gisa sortu zen.

Ordea, XVI.mendetik aurrera, kolonizazioarekin batera, diruaren behar izugarria sortu zen. Ordea, erregeek ez zuten behar adina diru beren kolonizazio prozesuak aurrera eramateko. Ondorioz, orduan *indietako konpainia* izenez ezagutu ziren enpresa hauek sortu ziren, bereziki Ameriketako kolonizazio prozesuetan baliatu zirenak.

Enpresa horien bidez, jendea ausartu egin zen erregearen esku bere dirua uztera; galtzekotan diru hori soilik galdu baitezakete.

Enpresa mota hori gabe, ordea, ez ziren ausartzen diru kantitate txiki bat emateak ondasun guztiekin ordaindu beharra eragiten baitzuen porrotaren kasuan.

Esan bezala, bada, enpresa kapitalistek indietako konpainietan dute jatorria. Hasiera batean enpresa publikoak baziren ere, pribilejio hori pribatizatu egin zen gerora.

Horrela, kapitalaren kontzentrazioa ahalbidetzen duen tresna sortu da: kapital handia biltzen da jende askoren kapital txikiak batuta. Ondorioz, enpresariak beraiena ez den diru asko balia dezakete eta aberastasunaren hazkuntza esponentziala ahalbidetzen da.

2. Teknologi eta makinizazioa: Urbanizazioa eta Industria iraultza

Aipaturiko bi ezaugarri horiez gain, teknologiaren eboluzioak eta makinaren sorrerak gizartearen makinizazioa eragingo du: hots, makina berriak, motorrak eta abar sortuko dira.

Horrek, enpresa kapitalistak ematen duen aukera indartuko du:

Bazegoen kapitala kontzentratzeko modurik

Orain badago produkzio masiborako makinari (kate lana adibide)

Horrela, fabrika handi eta mehatzeak (burdina beharrezkoa izango baita jardun eta iraultza industrialerako) sortuko dira; eta jendea (langileak) pilatuko dira espazio fisiko mugatu batean.

- Urbanizazioa:

Aipatutako guztiaren ondorioz, jendearen bizitza aldatu egingo da, bereziki herrialde aurreratuetan. Honekin batera urbanizazioa helduko da.

Jendea baserri ingurutik hirietara mugituko da eta populazioak aldaketa garrantzitsuak pairatuko ditu horrela.

- Lan baldintzak:

Garai hartan lan baldintzak oso gogorrak ziren, gaur egungo hirugarren mundukoan direnen antzekoak: Langileak fabriketan kontzentratuta, lanaldi oso luzeak (12-14h), haurren esplotazioa... esklabutzaren pareko baldintzak.

Beren egoera aurretik zegoena baino okerragoa ere suertatzen da maiz; hots, langileek fabrikatan ez dute inongo askatasunik eta galdu egiten dute antzina zuten sormen edo lanaren kontrola (nekazari eta artisauek bazutena).

Izan ere, langilea lan esku hutsal bilakatzen da, soldata berme baten truke.

Sortzen den gizarte mota horrek sekulako eboluzioa izango du XIX.mendean eta batez ere XX.mendean; ondorioz, gizarte berri baten zutabeak finkatuko dira:

Ez du esan nahi aurreko gizarte estamentalak eta, ondorioz, estamentuak ezabatuko direnik; ezta nekazaritza eta artisautza desagertuko direnik ere.

Ordea, burgesia eta langileria gailenduko dira; ekonomian produkzio industrialak nagusiko baita.

Kapitalismoa, beraz

Esan genezake kapitalismoak ez duela kasik zerikusirik merkatu liberalismoarekin. Liberal izatea, teoriarik, berdintasuna eragingo luke; ordea, kapitalismoan trukatu egiten da merkatu liberalismoa eta pribilegioak sortzen dira.

- Enpresa handiek dituzte pribilegioak. Izan ere, enpresa ertain zein txikiek ere baliabide dezakete forma juridiko hori (enpresa kapitalista edo sociedad anonimarena); baina ezingo lituzkete bere pribilegioak probestu.

Ad: bankuari dirua eskatuz gero ez die emango, beren pisu edo beste ondasunen bat hipotekatu ezean.

Hori dela eta, hots, pribilegioek eragin nabarmena dutenez, merkatuak ez du libreki jokatzeko. Horren ondorioz enpresa handiak erakundeak dira:

- Ez dira dirua egitera (kapital metaketa) soilik dedikatzen
- Beren pribilegioak baliatzen dituzte modu desorekatu baten eta botere politikoarekin harreman estua mantenduz.

“Laissez faire, laissez passer” ez da existitzen, hots, kapitalismoa zeharo lotuta dago botere politikoarekin.

GIZABANAKOA

Esan genezake, nolabait exageratuz, gizabanakoa estatu liberalarekin batera sortu zela. Hots, gizabanakoa estatu liberalaren eskutik dator, indibidualismoaren eskutik.

- Izan ere, gizabanakoa, askatasunak sortzen du hein batean. “Gizabanako” esatean, gizakiok gure artean ezberdinak garela eta erabakitze eskubidea dugula azpimarratzen dugu.
- Liberalismoaren aurretik, ordea, hori ez zen horrela: jaiotako leku berean hiltzera, gurasoen ogibide bera jorrazera eta abarrera kondenatuta zegoen gizakia. Gizarteko arauarekin, lurraarekin, lanarekin, pribilegioekin (izatekotan) ... erabat lotuta.

Esan bezala, beraz, estatu liberalak jendea askatu egin zuen antzinako erregimenaren lotura horietatik.

- Norbere erabakiak hartzera bultzatzen du errege edo Aita Santua infalible ez direla onartuz, adibidez.

Orokorrean, liberalismoak planteatzen du gizakiak ez direla estamentu jakin batetan eta estamentu horri (ez) dagozkion pribilegioekin jaiotzen; hots, denak libre eta berdinean jaiotzen garela aldarrikatzen du.

- Aldarri horrek askatasun teoriko bat sortzen du. Ordea, askatasun hori oso baldintzatuta dago berezko errealitatearekin.
- Era berean, ordea, aukera ematen du pentsamendu ezberdinei bide emateko.

Esan bezala, ordura arte gizakia + gizartea beti lotuta ikusi izan ziren. Liberalismoarekin gizabanakoaren indibidualizazioa aldarrikatu zen.

Indibidualizazio ideia horrek bere baitan biltzen ditu *berdintasun eta askatasunaren* ideiak. Dena den, kontzeptu horiek ez dute adiera berbera liberalismoarentzat.

- Berdintasuna:

Legearekiko berdintasunari egiten dio erreferentzia; mundu guztiak arau berdinekin jokatzeari, denoi lege berbera aplikatzeari. Izan ere, garai hartan estamentuen araberako pribilegioak (lege bidez absolutismoan ezarriak) ziren ezberdintasun handiera sortzen zutena..

- Honek zorakeria ematen du orain baina Frantziar Iraultzan uste zuten pribilegioak kendu, erregeari lepoa moztu eta denok herritar bihurtuko zirela. Hori gertatuko zela imajinatzen zuten arren, hori ez zen gertatu eta ez da inoiz gertatuko.
- Izan ere, mundu guztiari lege berdina aplikatuz gero ez da berdintasuna lotzen, beste hainbat faktore dagoelako: baldintzapen materiala, kasu. Legearen aurreko berdintasunak ezberdintasun edo diskriminazio iturri bat kentzen du. Ordea, bestetzuek bizirik iraungo dute.
- Berdintasun honi “berdintasun formala” deritzo. Hipotetikoki berdintasuna badago, baina errealitatean ez da ematen. Berdintasun osoa emango balitz “berdintasun materiala” deituko litzaioke.
- Ikusiko dugu, aurrerago, nola kapitalismoak berdintasunarekin ezberdintasun handiagoak eragin zituen behintzat bere lehen fasean. (Desberdintasun materiala, kasu).

- Askatasuna:

Loturarik ez izatea, mendekotasunik ez izatea, norbere kabuz norbere erabakiak hartzea.

- Liberalismoak botere publiko edo politikoa jotzen du askatasunaren etsaitzat. Horrela, askatasuna boterearen aurka aldarrikatzen da, haustura gisa.
- Askatasuna, ordea, norberaren esparruaren babes gisa ulertzen da. Liberalentzat horixe baita funtsezkoena: gizabanakoa, gizarteaz ahantzita.
- Esan bezala planteamendu honek erlazio handia du bere une historikoarekin: gizakiak ez zuen inongo askatasunik, estamentuari lotuta jaiotzen zen.

- Ondorioz, honekin gizabanakoak bere erabakiak hartzea aldarrikatzen da, inor bere askatasun esparruan sartu gabe.
- Hori lortzearren, etsaitzat aipatutako botere politikoak (estatuak) minimoa izan behar du. *Estatu polizia* deiturikoa: estatuaren xede bakarra legeak mantentzea da, segurtasuna eta bakea bermatuz. . Gainontzeko guztian estatuak ez du esku hartzerik izan behar, pertsona partikularren esku egon behar du denak.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK ESTATU LIBERALEAN

Lehen estatu liberalak *eskubide eta betebehar (obligazio)* batzuk arautzen ditu.

Jabego pribatua, adierazpen askatasuna, kultu askatasuna (erlijiosoa), sufragioa edo eskubide politikoak, pentsatzeko askatasuna (lehen askatasuna) eta abar

Lehenbizi, Liberalismoarekin batera, aitortu ziren eskubideak (***lehen belaunaldiko eskubideak***) eskubide zibilak dira; oro har, askatasunak direnak.

1) Askatasun ideologikoa:

Jendeak nahi duena pentsatzeko duen askatasunean oinarritzen da, aniztasunaren ideian. Izan ere, ordura arte pentsamendu legitimo bakarra zegoen (erlijioak markatzen zuena). Ordea, liberalismoarekin batera, egia eta arrazoi ezberdinak egon daitezkeela aldarrikatzen da. Halere, gai gatazkatsua izaten dirau honek gaur egun ere (iruditzen baitzaigu guk pentsatutakoa gainontzekoek pentsatzen dutena baino egokiagoa dela).

2) Adierazpen askatasuna:

Aurrekoarekin irmoki erlazionatuta. Askatasun ideologikoa esparru pribatura mugatzen da; adierazpen askatasuna, ordea, publikora zabaltzen da.

3) Komunikatzeko askatasuna eta komunikazio sekretua

4) Egoitzaren bortxaezintasuna

5) Zirkulatzeko askatasuna

6) Egoitza hartzeko askatasuna

7) Kultu askatasuna edo askatasun erlijiosoa

- *Ordea, zein da eskubide/askatasun hauen muga?*

Bai; eskubideen mugak besteen eskubideak baitira: baten eskubideak beste batena kolokan jartzen duenean topatzen da muga hori, alegia. Horrenbestez askatasunen mugaren abiapuntua elkarbizitza dela esan genezake.

Ad: adierazpen askatasuna beste baten ohorerako eskubideak mugatzen du (orokorrean eskubide ezberdinek urratzen dute elkar)

Ad: era berean, nik nire eskubide bat baliatzeak beste batek baliatu ezina eragiten du (manifestazio bat leku eta ordu berean egin nahia, adibidez)

Halere, aintzat izan beharrekoa da pentsamendu askatasuna edo askatasun ideologikoak ez duela mugarik, ez delako esparru publikoan sartzen.

- *Zer egin behar du estatuak eskubide zibilak bermatzeko?*

Aski du legeak ezartzearekin, ez du dirurik jarri behar. Hots, estatuak egin behar duena "ez-egitea" da, geldi egotea eta indibiduen bizitzetan ez esku hartzea. Horrela, estatu liberalean estatuaren interbentzio eza sustatuko da.

Gerora, **eskubideen bigarren belaunaldia** abiarazi eta eskubide politikoak sortuko dira. Oro har, alderdi politikoak sortu, botoa eman, hauteskundeetara aurkeztu eta abarreko bermea ematen dute eskubideok; hitz gutxitan esatearren, parte-hartzea.

- 1) Alderdi politikoak sortzeko eskubidea
- 2) Hauteskundeetara aurkezteko eskubidea
- 3) Sufragio edo boto eskubidea

Orain arte aipatutako eskubideez gain, bada beste bat zeinak ez duen aurrekoekin zerikusirik baina estatu liberalean garrantzitsu eta funtsezko den.

- 1) Jabeko pribatua:

Honek ezaugarri berezi bat du askatasunekin alderatuz gero: izan ere, askatasunak ez dira materialak (inmaterialak dira); aitzitik, jabetza eskubidea materiala da. Horrenbestez, muga bat du derrigor.

Materiala denez lortu egin daiteke. Eta materia mugatua dela aintzat hartuta, esan genezake zerbaiten jabe egiten garenean haren jabetza ukatu egiten diegula gainontzekoei. Hots, jabetza ez da denok neurri gabe gehiago eta gehiagora eraman dezakegun zerbait.

Jabetzaren eskubidea derrigorrezkoa da, hein batean, bizirauteko beharrezko direnak eskuratzeko (janari eta arropak, besteak beste). Ordea, jabetzaren eskubidea maila jakin batetik gora baliatzerakoan arriskua eragin dezake (lurraren kasuan, adibidez, oso mugatua baita); baita gehiegi kontzentratzen bada ere.

Dena dela, liberalentzat eskubide sakratua da jabetza eta ia mugagabetzat jotzen dute. Horrela, hauen ikuspuntutik jabetza zaintzeko sortzen da Estatua bera.

2) Enpresa askatasuna:

Jabetza eskubidearekin erlazionatzen da eta enpresa bat sortzeko askatasunari egiten dio erreferentzia; hots, jabetza pribatuaren beste ikuspuntu bat dela ere esan genezake.

Ad: auto bat badut, nire jabegoa da. Ordea, taxi lez baliatuz gero, jabegoa enpresa bilakatzen da.

Horrela, esan genezake azken bi eskubide hauek direla (jabetza pribatu eta enpresa askatasuna) estatu liberalaren oinarritzko eskubideak: hauetan oinarritzen baitute ekonomia osoa.

JABETZAREN JUSTIFIKAZIOA ESTATU LIBERALEAN:

Zein legitimazio dauka horrek.

Gauzak eskuratzeko modu legitimoa (Lockerentzat, liberalentzat) lana da. Lana (-ren akumulazioa) da jabetzaren oinarri eta legitimazioa.

Pentsa dezagun gizarte primitiboetan, ehiztari edo arrantzaleengan. Arrainak arrantzatu eta arrainak trukatu egiten zituen. Gosea asetzeko behar duena baino gehiago arrantzatu eta soberakoa akumulatu egiten da. Soberako lan horren fruitua trukatu egiten zen beste ondasun batzuentatik. Hots, behar dena baino lan handiagoa egiten zen akumulaziorako.

Jabetza nomadismoa amaitzearekin batera sortzen da, sedentarismoa heltzearekin batera. Izan ere, orduan hasi zen nekazaritza eta, horrekin batera, lurren beharra areagotu zen (lurren jabetza). Honek puntu bat arte justifikatzen du jabetza.

Aitzitik, aberastasunaren kontzentrazioarako ez da aski norberaren lana: beharrezkoa da beste batzuen lanaren kontratazioa.

Afera honekin oso lotuta dago:

1) Oinordetza eskubidea:

Norbaitek jabetza pribatuaren bidez akumulatutakoa bere ondorengo belaunaldiari igortzeko duen eskubidea.

4.GAIA: KONSTITUZIO SOZIALA: BOTEREAREN ANTOLAKETA, GIZARTEAREN ANTOLAKETA, GIZABANAKOAREN EGOERA ETA ESKUBIDEAK

Estatu liberalean langile klaseko herritarren botoa eman eta gizarte/estatu/alderdi sistema aldatu egingo dira.

- XIX.mendean zehar liberalak (ezkerrekoak) eta kontserbadoreak (eskuinekoak) bereizten ziren.
- Ordea, gerora emandako haustura ideologikoaren ondorioz, langileria (mundu sindikal, langile mugimendu zein ideologia anarkistakoak; ezkerrekoak) eta burgesia bereiziko dira.

ESTATU SOZIALA

Sarrera

Estatu liberalarekin esandako moduan, estatu soziala ere existitzen ez dela esan behar dugu. Neurri erlatibo batetan soilik existitzen da, ideia erlatiboa da beraz.

Ipar Europako estatuarekin erlazionatzen da; bereziki, estatu iskandinaboekin.

Kokapen historikoa:

XX.mendearekin lotzen da.

- 1919an sortu zen, Alemaniako Weimar errepublikaren baitan Nazismoa sortu zen. Ordea, horren aurretik, Estatu Soziala zen bertakoa.
- Horren aurretik Mexikar Iraultzako konstituzioan aipamen bat egiten zaion arren, ez zen abian jarri.

Estatu Liberala aipatzean XIX.mendeari egiten genion erreferentzia, teoria liberal eta demokratikoetatik edaten zuena. XVII-XVIII an sortzen dira absolutismoa gainditzeko (sortzen dena beti aurrekoa gainditzeko sortzen da*)

Aitzitik, *Estatu Soziala*, liberal demokratikoaren eboluzio bat da zeinak printzipio berdinetatik edaten duen. Ordea, beste iturri batekin lotzen du hori: pentsamendu sozialistarekin.

Bateratu egiten ditu *pentsamendu liberal-demokratiboa* eta *pentsamendu sozialista*.

SOZIALISMOA:

Sozialismoa XIX.mendean sortzen den ideologia da.

- Aurrekariak: Sozialismo utopikoa
- Garapena: Sozialismo zientifikoa, materialismoa, marxismoa

Erregimen batzuetan praktikan jarri zen sozialismoa; hots, sozialismoaren konkrezio bezala aldarrikatu ziren. Aitzitik, gaur egun ideologia honen jarraitzaile gisa definitzen badira ere, errealitatean ez da hala.

Esan genezake pentsamendu liberal demokratikoa absolutismoak zituen arazoak konpontzeko sortu zen bezalaxe, sozialismoa estatu liberalak konpontzeke utzitako arazoak konpontzearen sortu zela.

- Sozialismoen artean, utopikoa baztertuta, *Marxismoa* (Marx eta Engels) da ezagunena. Proposamena:

Langile klaseak boterea hartu eta langile armatuen estatua sortu behar du, proletarioaren diktadura (lehen fasea). Gero, klaserik gabeko gizartea eta estatu komunista proposatzen ditu (bigarren fasea).

Aipagarria da bigarren fasean Komunismoan Anarkismoarekin nahiko bat egiten duela. Lehen fasean, aldiz, Anarkismoak polizia eta abar deuseztatzearen alde egiten duen heinean, Komunismoan indar horiek indartzearen alde egiten da.

- Esan bezala, beraz, planteamendu horretan justifikatutako erregimenak sortu ziren: estatu komunistak, marxismoan oinarritutakoak. Liberalismoak eta autoritarismoak (Italia, Alemania, Espainia) sortu ziren garai bertsuan.

- Ordea, Sozialismoaren baitan haustura bat eman zen. Horrela, honakoak bereizi ziren:
 - Iraultza, langileak armatu: langileen diktadura. Bolchevique.
 - Sozialdemokrazia: iraultzarik ez, estatu liberal demokratikoaren barruan infiltratu eta barrutik estatua aldatu. Menchevique.

Horrek mugimendu sozialistaren baitan haustura eta eztabaida sortu zen.

ESTATU SOZIALA

Horrela, estatu soziala planteamendu liberal demokratikoen eta sozialisten arteko erdibidean oinarritutako estatua dela esan genezake.

- Oinarriztat: konstituzio liberal demokratikoa (askatasunen mantenua)
- Tresnak: estatuaren interbentzioarekin erlazionatutakoak

Horren ondorioz, estatu mota berri bat sortuko da, estatuaren eboluzio bidez.

Boterearen antolamendua estatu sozialean:

Esan genezake estatu sozialean estatu liberal demokratikoaren botere antolaketa mantendu egingo dela: mantendu egingo dira oinarrizko egitura eta zutabeak.

- Botere banaketa
- Subiranotasunaren ideia
 - Mantendu egingo da baina izaera aldatuko da: nazionala izatetik → herrikoia izatera, popularra. Parte-hartze politikoa zabalduko da. Izan ere, estatu liberalak nazioaren ideia mugatu eta elitista zuen: sufragio mugatu (zentsitario, egoera ekonomikotik abiatuta edo ikasketa maila batetik) bidez egiten zen. Horrela, jabegoak zituztenak ziren, oro har, bozka eskubidea zutenak; hots, burgesiak.
 - Hasiera batean subiranotasun popularra (nazionalaren gisa) gizonezkoentzat zen. Honekin sortuko dira lehen sufragistak (feministak).

Nazional burges gizonezko → herritar gizonezko → herritar guztiak (emakumeak)

Eskubide hori lotzeko:

1. Arazo baten presentzia edo beharizanaren presentziaz jabetu eta identifikatzea.
2. Planteamenduaren ostean, bakan batzuen bat egitea
3. Beharizana dagoenean, horren aldarria bere beharra duenak soilik egingo du. Horrela, emakumeen kolektiboa izan zen aldarri egin zuena
4. Gutxiengo den hori sozializatu egin behar da; horrela, hegemonia edo gehiengoak onartutako ideia izatera igarotzeko
5. Arau bilakatzen da hala: urrats honekin sortzen da eskubidea
 - a. Hau ematen ez den arte ideiak ez dira eskubide: ideia legitimo edo nahiak besterik ez dira.

- Sufragio unibertsala
 - Honekin batera eta bozken bidez alderdi sistema aldatu egingo da
 - Liberalismoan: kontserbadorean (eskuin) / liberalak (ezker)
 - Hau Frantziar parlamentuan hartzen zituzten eserlekuen arabera izendatzen da
 - Estatu Sozialean: burgesia (eskuin) / langile mugimendua (ezker)

Horrela, laburbilduz, esan genezake boterearen antolaketa estatu liberalean egiten zen lez banatzen zela estatu sozialean. Ordea, aldaketa batzuk eman ziren:

- Sufragio unibertsala
- Alderdi sistemaren aldaketa

Gizartearen antolaketa estatu sozialean

Antolaketa estamantaletik (antzina) → klasistara (liberala) → interklasistea (soziala)

Estatua *interklasista* bilakatuko da, *estatu interklasea* sortuko da.

- Boterea aldatzearekin batera (langileen eragina nabaritzeko), gizarte zeharo klasista batetik interklasistara igarotzen da.
 - Klasista + ezaugarri berriak, alegia = interklasista

Egoera berri honetan, ordea, bi klasek nagusitasuna izaten jarraituko dute:

burgesia vs. langileria

Halere, neurri batean:

- 1- Euren arteko mugak murriztu
- 2- Mugikortasun soziala areagotuko da (self made man)
- 3- Langileriaren egoera hobetuz doa eta beren klasea indartuz

Estatu Sozialak gizarte sisteman aldaketa eragingo du, sistema ekonomikoan aldaketa batzuk eginez: horrela, sistema ekonomikoak kapitalista izaten jarraituko du, baina aldaketa batzuk gauzatuko dira.

Ekonomia sistema sozialean:

Esan bezala, bada, Estatu Sozialistan ekonomiak kapitalista izaten jarraituko du. Ordea, aldaketa batzuk emango dira:

- XIX.mendeko kapitalismoa *Manchesterianoa* zen, langileak era marginal eta prekario batean bizi ziren

- XX.mendean kapitalismo *Fordista* sortu zen: honen oinarriak dio kapitalaren akumulaziorako baldintza beharrezkoa dela langileen egoeraren hobetzea
 - Ford: kotxeak sal ditzadan, nire langileek kotxeak erosi ahal izan behar dituzte. Langileak kontsumitzaile izatera pasa daitezten interesatzen zaio.

- *Keynesianismoa*: kapitalismo Fordistan estatuak izan behar duen esku-hartzeari buruz mintzo da.
 - Kapitalismoa ziklikoa dela dio, eta libre utziz gero gorabehera nabarmenak dituela krisiak suertaraziz. Hori saihesteko, ez da ekonomia bere kontura utzi eta beharrezkoa da estatuak bidera dezan (interbentzioa, ekonomiak ongi funtziona dezan sakonki arautu behar da).
 - Teoria ekonomiko gisa beste ideia batekin erlazionatuko da: **ongizatezko estatuaren** ideiarekin.
 - Izan ere, kapitalismoa bere kabuz uzten baduzu enpresa nagusien erregimen bilakatzen da (monopolistiko eta oligopolistiko), arrain handiak jartzen baititu arauak. Lehiakortasun librea ematea ezinezko bilakatzen da.
 - Horrela, Keynesianismoak hori aldatu nahi du, estatuak helburu berriak bereganatzen. Dagoeneko ez da laissez faire, laissez pase gisakoa.

Nola burutzen da hori?

- Zerbitzuak eskainiz: herritarren aukerak zabaldu.
 - Hezkuntza eta osasunaren sektorea, nagusiki. Estatu liberalean arazo pribatua ziren. Ad: pentsa orain AEBtan.
- Arauak jarritz: Praktika monopolistikoak saihestu eta kompetentzia mantentzeko helburuarekin.

Horrela, estatua bera enpresario bilakatuko da.

- Estrategikotzat kontsideratzen dituen ekonomiaren sektore batzuk bereganatu, nazionalizatu edo kontrol publikoan jarriko dira: energia sektorea, errepideen sektorea, finantza sektorea ...
- Horrekin ekonomia ongi bideratzea bermatzen du.

Zergak Ongizate Estatuan:

Ongizate estatuak dituen helburuan bete ditzan beharrezkoa du zerga sistema sendo bat.

- Zerga sistemak

Zerga gogorragoak, estatu sozialagoa (orokorrean). Izan ere, estatuak, liberalismoan existitzen ez zirenak bere gain hartzen baditu (zerbitzuak kasu), diru asko beharko du. Horrela, esan genezake ongizate estatu, batez ere, *zerga sisteman* oinarritzen dela. Orokorrean, zerga handiagoek estatuaren funtzionamendu hobea dakarte.

Zergak izaera ezberdinekoak izan daitezke. Horrela, zerga sistemak oso ezberdinak dira eta asko esan diezaguke estatu bati buruz bere zerga sistemak.

Horrela, esan bezala:

- Garrantzitsua da zerga sistemaren *gogortasuna* (zerbitzuak bermatu): par Europa da honen adibide
- Era berean oso garrantzitsua da zerga sistemaren *izaera* aztertzea:
 - Zerbitzuak bermatzen ditu

- Aberastasunaren banaketan burutzen du: ez ditu klaseak ezabatzen baina ezberdintasunak murrizten ditu

Zerga motak:

- *Zerga zuzenak:*

Irabazterakoan kentzen dituzte; hau da, sektore publikoak zuzenean jasotzen ditu zergapekoen eskutik.

Orokorrean aintzat hartzen dute zergapeko bakoitzaren irabazi eta ondareen nolakoatasuna.

- IRPF (Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas) edo PFEZ (Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga)
- IS (Impuesto de Sociedades) edo SZ (Sozietateen gaineko Zerga)
- EJZ (Ekonomia Jardueren gaineko Zerga)

Hauek oso garrantzitsuak dira ongizate estatuan

- Zerga sistema hauetan oinarritzen bada, hobe, *progresiboago* izatea ahalbidetzen baitu → zerga bat progresiboagoa bada, hobe banatzen du aberastasuna. Izan ere:

Kapitalismoan aberastasuna gaizki dago banatuta, oso desorekatua. Eta zergak hori orekatzea ahalbidetzen dute; batik bat, *zerga progresiboek*.

Hileko soldata	Denek berdin Bodka botilaren BEZa	<i>Denek proportzio berean Ad %10</i>	<i>Denok ezberdin, progresiboa IRPFa. (*)</i>
0			0
800	2€	8	
1500	2€	15	
4000	2€	40	
10000	2€	100	

(*)

0-1000 → %0

1050-2000 → %10

2050-5000 → %15

5050- .. → "25

Horrela, gehien irabazten duenak ez du soilik gehiago ordaintzen baizik eta proportzioak ere aldatu eta are gehiago ordaintzen du. Progresibo

izate hau ongizate sisteman oso garrantzitsua da. IRPFa da, beraz, ongizate estatuaren oinarria.

Orokorrean, ongi betetzen du bere lana. Erraza baita pertsonen irabaziak kontrolatzea (diru beltza salbu).

Gainera, honengan oinarritzen da aberastasunaren birbanaketa.

IS, ordea, ez da hain progresiboa izaten. Hemen sistemak ez du hain ongi funtzionatzen. Izan ere, enpresen irabaziak kontrolatzea zailagoa da pertsonenak kontrolatzea baino.

Izan ere, enpresetan (IS), ekonomia beltza askoz handiagoa da indibiduoetan baino: soldatak jakin daitezke, baina ez da erraza zehazten enpresa batek zenbat irabazten duen. Izan ere, batzetan diru beltzean aritzen dira eta ez dute BEZa ordaintzen (enpresa handiek zein autonomoek).

- Enpresa handiek, zergak ez ordaintzeko, paradisu fiskal deiturikoetara jotzen dute, “ingeniaritza finantzarioa”.
Enpresen kasuan, irabaziak mugitu egiten dira pantalla batetik bestera, eta galdu egiten da dirua bidean. Horrela, oso zaila da enpresa interpuesto gisa mugimendu horiek aztertzea.
Are gehiago enpresa hori paradisu fiskaletan badago.
- Enpresei zergak ez ordaintzeko aukera ematen die estatuak, erraztasunak ematen dizkie. Hots, enpresa jakin batek dirua (modu egokian) inbertitzen badu gauza jakin batetan, zergak proportzio txikiago batean ordaindu beharko ditu.
- Hori horrela izaki, pertsona fisikoak enpresa edo sozietate bilakatzen dira gutxiago ordaintze aldera.

Adibideak:

Eliteko kirolariak beren irabaziak desbideratzen dituzte interpuestoaren enpresa pantallen bidez, dirua ekonomia beltzera igaro eta zergarik ordaindu behar ez izateko (IRPFa oso garesti irtengo litzaieke beraiei).

Jon Solos: estatuak errazegi uzten dit zergarik ez idazten.

“Pago menos impuestos que mi secretaria”: ISa %6 ingurukoa da batez beste, eta IRPFa %25a inguru.

- Enpresa txikiei dagokienez, handiekin alderatuta desabantailan daude. Izan ere, enpresa nagusiek

badute ingeniaritza finantzarioa burutzerik; ordea, txikiek ez.

- *Zeharkako zergak:*

Sektore publikoak ez ditu zuzenean jasotzen zergapekoen eskutik, bitarteko bat egoten da. Bitarteko hori zerbitzu edo produktu bat izaten da. Horrela, horietako bat erosten denean ordaintzen dira zergak.

Zerga hauek ez diote zergapeko bakoitzaren irabazi edo ondareei jaramonik egiten.

- BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga)

Aberastasunaren birbanaketa:

Aipatutako zergen bidez bermatzen da: zerga asko kobratu eta zerga zuzenen progresibotasuna sustatuz.

Birbanaketa hori emateko → diru gehien dutenek gehiago ordaindu behar dute, eta diru gutxien dutenek gutxiago.

- Dirua biltzerakoan, birbanaketa goranzko bidean egiten da: Gehiago kentzen zaio asko duenari, gutxi duenari baino.
- Ordea, dirua banatzerakoan, estatuak beheranzko birbanaketa egiten du:
 - Diru laguntzak eta prestazioak: honi dagokionez, estatuak ez dizkio biztanle orori ematen, behartsuenei aldiz. Hemen biltzen dira langabeziaren ordainketa, pentsioak, prestazio sozialak eta abar.
 - Zerbitzu publikoak: kasu honetan, zerbitzu unibertsalekin itxuraz denok laguntza jasotzen dugun arren (adibidez, unibertsitate tasen $\frac{1}{4}$ soilik ordaintzen dugu denok, pobre edo aberats garen aintzat hartu gabe), birbanaketa burutzen da. Izan ere, zerbitzu publiko hauek existituko ez balira, aberatsek soilik baliatu ahal izango lituzkete. Gainera, azpimarragarria da zerbitzu publikoen erabiltzaileak oro har aberats ez direnak izaten direla; izan ere, aberatsek zerbitzu pribatuetarako joera handiagoa dute. Azken hori hemen ez da hain nabaria, zerbitzu publikoak nahikoa onak baitira (maiz pribatuak baina hobeak) eta, horrenbestez, ez baita horrenbesteko klasismoa ematen zentzu horretan.

Birbanaketa horren bitartez, estatu sozialaren fasean (20-80 hamarkaden bitartean) eta, batez ere, Europa mailan, munduaren historian izan den gizarterik berdintsuena izan zen. Ordea, gerora, kapitalismoaren fase berri batekin, estatu sozialaren oinarrian zegoen gizarte ituna apurtu eta sortutako berdintasunean oinarritutako gizarte hautsi egingo da.

GIZABANAKOA edo HIRITARRA ESTATU SOZIALEAN

Hiritarra dagoeneko ez da legearen hartzaile hutsal izango; hots, estatuari exijitu ahal izango dio hainbat zerbitzu eskaintzea.

Berdintasuna Estatu Sozialean:

Baldintzapen legalak aintzat hartzen dira; hots, legea da diskriminazioa edo berdintasuna lortzeaz arduratzen dena.

- Berdintasun formala
- Berdintasun materiala

Berdintasunaren diskurtso formala onartze den arren, berdintasun materialaren ideiarekin diskurtso hori orekatzen ahalegintzen da.

Justifikazioa:

- Arrazoi justu bat izan behar dute; hots, politika positiboen laguntzek beharra dutenei lagundu behar die.
- Garrantzitsua da, horrela, atzean dagoenari laguntzea. Laguntza hau ez zaie hiritar guztiei era berean eman behar: proportzional eta neurtua izan behar du.

Eskubideak Estatu Sozialean:

Estatu Sozialaren helburua berdintasuna izaki (formal+material), hori lortzeko bidean pausoak eman ziren. (≠ Estatu Liberala, zeinetan berdintasuna materiala bere kabuz helduko dela defendatzen zen).

Horrela, hiritarrak estatu liberalean zituen eskubideei beste batzuk gehitzen zaizkie Estatu Sozialean → **hirugarren belaunaldiko eskubideak**

Izan ere, aurretik aipatu bezala, eskubide mota ezberdinak daude:

- 1) *Lehen belaunaldiko eskubideak*: eskubide zibilak, askatasunak. Norbanakoari bere erabakiak hartzeko askatasuna ematen diote.
- 2) *Bigarren belaunaldiko eskubideak*: eskubide politikoak, parte-hartzearekin erlazionatutakoak.

3) *Hirugarren belaunaldiko eskubideak: eskubide sozioekonomiko eta kulturalak.*

Hauek pentsamendu sozialistatik edaten dute; hots, berdintasun materialera bidean, langile mugimenduaren eskari zein eskubideekin erlazionatzen dira.

Hauek aukera ematen dute gizarte liberalean sortzen diren desorekak orekatzeko.

Honen baitan kokatzen dira:

- Langileen eskubideak:

Esan bezala, bada, hirugarren belaunaldiko eskubideok lan munduarekin erlazionatzen dira. Horrela, lan munduan (langilea vs. burgesa) ahulena den aldea (langilea) indartzeko balio dute.

- Eskubide instrumentalak:

Langileen eskubideak bermatzeaz gain hainbat tresna sortzen dira eskubide horien gauzatzea erdiesteko. Aipagarria da tresna hauek, estatu sozialaren aurretik, urte luzetan zehar ilegalak izan zirela.

- Sindikatuak
- Negoziazio kolektiboa

XIX.mendean guztiz desorekatua zen langile eta enpresarioen arteko harremana. Honi dagokionez, Liberalismoan *askatasun kontraktuala* zegoen (hots, adin nagusiko bik erabaki bat adostuz gero Estatuak ezin zuen horretan interbentziorik burutu). Askatasun kontraktual horrek “contratos de adhesión”-aren gisakoak baimentzen zituen, zeinetan bi aldeetatik bakarrak finkatzen zituen kontratuaren oinarriak. Horrela, enpresarioa izaten zen baldintzak ezartzen zituena.

Horri konponbidea ematearren, eta ikusita langileak bakarka ez duela enpresarekin negoziatzeko aukerarik, *negoziazio kolektiboa* sortu zen.

Negoziatio kolektiboan, lan baldintzak bakarka negoziatu ordez, langileak batu eta ordezkaritza bidez burutuko da negoziatioa: langileen ordezkaritza enpresarioen ordezkariekin negoziatuko dute.

Negoziatio horietan konbenio kolektibo batzuetara heltzen da, eta legeak balira lez errespetatu eta bete behar dira horiek.

- Greba:

Langile mugimenduaren autodefentsa mekanismoa. Langileen lan baldintzak hobetu eta beste eskubide batzuk aldarrikatu/lortzea dute helburutzat; hots, enpresarioak lan baldintzak hobetzera bultzatzeko modua izan zen. Hasieran

delitu ziren, gerora despenalizatu egin ziren eta azkenik eskubide gisa arautu ziren.

Esan bezala, bada, tresna horien bidez beste eskubide batzuk eskuratu zituzten langileek:

- Lan ordu mugatuak
- Oporrak
- Seguritate soziala izateko eskubidea
- Langabeziarekiko babesak

Langileentzat eskubide eta tresnez gain, gizarteko beste talde kaltetuenei begira ere hainbat eskubide sortu zen; hala nola, elbarrituei laguntzeko eskubideak.

Eskubide sozioekonomikoen izaera:

Eskubide guztiak ez dira berdinak; hots, ez dute indar berbera: batzuk indartsuagoak dira bestetaz baino.

- Eskubide zibil edo askatasunak nahikoa eraginkorrak izaten dira, bermatzeko errazak alegia. Izan ere, estatuak ez du dirurik gastatu ere egin behar horien bermerako.
- Aitzitik, eskubide sozioekonomikoak hein batean askatasun diren arren, prestazioak izaten dira orokorrean: ez du balio paper batean idatzita egoteak, beharrezkoa da estatuak dirua gastatzea.

Hori horrela izanik, eskubide sozialak ez dira hain eraginkorrak izaten: baldintzatuta daude botere publikoak edo estatuak dituen errekurtsoen arabera. Ondorioz, derrigorrezkoa da estatuaren politikak garatzea eskubide horiek bermatu daitezen.

Adibidea:

- Etxebizitza eskubidea: Juezak ezin bermatu dezake etxebizitza. Ordea, eskubide horren baitan beste osagai batzuk aintzat har ditzake (okupazioen kaleratzea).

Eskubideen izaera aldaketa:

Eskubide berriak sortzeaz gain (hirugarren belaunaldikoak), aurretik ziren batzuen izaera aldatu egiten da Estatu Sozialean. Hots, mantendu egiten dira eskubide klasikoak baina beren izaera aldatu egiten da.

Askatasunen izaera aldatu egiten da. Izan ere, Estatu Liberalean interes partikularra da babesten dena, gizabanakoa da eskubide zibilen funtsa. Aitzitik, Estatu Sozialean, eskubide orok bi helburu ditu:

- Interes partikularra
 - Funtzio politiko edo soziala
- } Estatu Sozialak bi hauek orekatu behar ditu

Estatua soziala izateak esan nahi du helburu soziala dagoela egiten duen ekintza orotan, gizarte justuagoa lortzearen. Horrek, eskubideen izaera aldatzen du beren helburua gizabanakoaren interesa soilik izatetik, helburu soziala ere bermatzen baita.

Ad: Jabetza pribatuaren eskubidea. Liberalismoan, ugazaba edo jabearen interesa babesten du estatuarengandik. Horrela, jabetza, ia mugagabe edo absolutua da estatu liberalean. “Derecho al uso y al abuso”. Estatu sozialean, ordea, jabetza eskubidea mugatu egiten da: ez da interes partikularra soilik hartzen kontutan, jabetzaren funtzio sozialarekin orekatu beharra dago hori. Jabetzak, horrela, jabetzak duen funtzio soziala zein liteke? Alkandoraren adibidearekin argi geratzen zaigu jabetza batek berdin duela. Ordea, Txillidaren eskultura bat baldin bada nirea, erre nezake? Bada, ez. Kasu honetan interes sozialak interes partikularrak mugatzen ditu.

Baina hori dena nork baloratzen duen da kontutan hartzekoa.

Urbanismoaz mintzatu gara: gazteontzat interesgarria da, gure etxebizitza eskubidea ez baitago batere bermatuta. Ordea, herri baten lurra mugatua da. Herri hartako udalak, herriaren interes soziala politikoki gidatzen duenak, herriaren etorkizuna erabaki behar du, horretarako lurra nola banatu behar den erabakiz. Horrela, non eraiki eta non ez erabakitzen du. Hori esaten denean, udalak makina bat du dirua egiteko: lur batetan eraiki ezin bazen prezio bat zuen, ordea edifikable bilakatzen denean lurraren prezioa asko biderkatzen da (plusbalia sortzen da). Plusbalia hori sortzekotan, berez, interes sozialentzat izan beharko litzateke eta ez partikularrentzat.

- Demagun lur gutxiko leku batetan kirolegegi bat egin nahi dela herrian. Lur baten egiteko ideia dago baina bertan bi baserri daude eta ez dute saldu nahi. Baserri horrek, zeinak lurra duen, diru asko eskatuko du lurren truke. Horrek, bertako kirolegegia garestituko luke.
 - o Terrenoa edifikablea ez bada ez du ezer balio
 - o Edifiklabea bada, garestia (kontutan izan mundu berez ez edifikablea dela).

Udalak erabakitzen duena, beraz, ez edifikable gisa erostea bada. Geroko plusbalia herriarentzat litzateke.

Ordea, jabe partikularrek baldin badakite beren lurak interesgarri direla, gehiago eskatuko dute.

Azkenik, teoriarik diruak herriarentzat izan beharko balu ere, diru hori herriko lurren jabeentzat eta arkitekto eta abarrentzat doa, konstruktorearen amiguito dena. Ustelkeria iturri.

Laburbilduz, esan genezake eskubideei dagokionez interes pribatu eta publikoaren arteko talka sortzen dela. Eta eskubidearen arabera batek pisu handiagoa duela besteak baino: interes pribatua galtzera hel daiteke interes publikoagatik: Horregatik, jabetza eskubidean adibidez baliteke epaiak okupa bat bere etxetik ez ateratzea.

BOTEREA ETA GIZARTEA GLOBALIZAZIOAN

5.GAIA: ESTATU SOZIALAREN KRISIA

Sarrera

Orain arte ikusi dugun “Estatu Soziala”, fase historiko bat definitzeko baliatu dugun kontzeptua da. Fase historiko horrek, garapen maila oso altua eta oreka lortu zituen Europa Iparraldean. Ordea, XX.mendean zehar garatu zen hori krisian sartu zen 80.hamarkadatik aurrera. Horrela, Estatu Soziala galtzen hasi eta bere oinarriak bertan behera geratuko dira.

- Krisira arte eskubideak sakontzeko prozesu bat garatu zen zeintzuk jendearen bizi baldintzak hobetzea baitzen.

Ordea, esan bezala, 80.hamarkadatik aurrera estatu soziala krisian sartu zen. Horrekin, haren ezaugarri batzuk mantentzen diren arren, zutabea desegin zen: hots, gizarte ituna edo paktu sozialak hautsi zen.

KRISIAREN ARRAZOIAK:

Krisi hori hainbat arrazoiengatik izan zen, horien artean bi arrazoi nagusi:

- **Globalizazioa:** fenomeno teknikoa dela esan genezake, eboluzio teknikoaren ondorioz mundua txikitu egin balitz bezala.
 - Honekin dator garraio bideen aurrerapena eta horrek mugen desagerpena eragingo du: estatu arteko mugak biguntzea. Mundua globala bilakatuko da eta merkatua globala bilakatuko da hala. Hots, merkatu globala ahalbidetuko da.
 - Teknologia garatu egin ziren, bereziki internet. Mundua “txikitu” egingo da teknologien laguntzat.

Globalizazioak interdependentzia eragiten du lurraldeen artean: *relación de dependencia recíproca entre dos o más personas o cosas.*

Aldea globalaren ideia Marshall McLuhanen ideia izan zen: termino honek erreferentzia egiten dio globalizazioaren ondorioz hedatutako komunikabideen bidezko interkonexioari.

- ***Sobietar Batasunaren erortzeak, estatu komunisten erorpena:***

- Aurretik mundua bi bloketan banatuta izango da:
 - Bloke kapitalista
 - Bloke komunista

Bloke kapitalista komunistaren beldur izango da, mehatxu lez ikusiko du. Horrenbestez, kapitalismoak behartuta ikusiko du bere burua langile mugimenduarekin negoziazioetan aritzeko (nolabait langileria limurtze aldera, iraultzarik burutu ez dezan).

- Ordea, SESBen erorketarekin batera, bloke komunistaren mehatxua ezabatu eta kapitalismoak ez du langileriarekiko betebeharririk sentituko.
- Horrela, desregulazioa (arauen kentzea) eta anarkokapitalismoa hasiko dira.

KRISIAREN ERAGINAK:

- ***Neoliberalismoaren gorakada***

- Neoliberalismoa 80.hamarkadatik aurrera sortu zen eta hainbat pentsamendu ezberdin bildu ziren bere baitan. Esan genezake liberalismoaren antzeko ideiak biltzen dituela baina une historiko ezberdinerara doituta.
- Bereziki estatu sozialaren aurka jo zuen, arautzearen eta estatu erregulatzaillearen aurka
 - Hori desregulazio ideiarekin lotzen da, arauak murriztean oinarritzen baita
- Neoliberalismoaren ustetan, estatu zein eskubide sozialak kaltegarriak dira.
- Neoliberalismoaren justifikazioa: mundua interdependientea denez, lehiakortasuna beharrezkoa da. Lehian ari gara, konpetitibo izan behar da. Eta arauak, lehia oztopatzen dute.
- Neoliberalen ustetan estatu sozialak ekonomia gehiegi kontrolatu etazerbitzu publikoetan gehiegi inbertitu du. Horrela, arau gehiegikeria egozten dio.

- ***Estatua ≠ Merkatua***

Hots, hautsi egiten da estatuaren eta merkatuaren arteko harreman tradizionala. Izan ere, ordura arte estatu bakoitzean produzitzen zen bertan behar zena. Ordea, estatuaren mugek bere horretan dirauten arren, merkatua globala bilakatu da.

- Ekonomia globala
 - Kapitala globala
 - Lana ez

- Produkzio eta kontsumoa, hein batean, kanpotik baldintzatuta geratzen dira.

Zein ondorio dakar estatuak lehengoan jarraitu eta merkatua globalizatzeak (gainera kontutan hartuta kapitala globala dela eta lana ez)?

Ondorioak

Bi ondorio nagusi:

- ***Desregulazioa edo Dumping soziala:*** Desregulazioaren ondorioz dumping soziala sortuko da.
 - Izan ere, desregulazioak munduko estatuen arteko lehia sortuko du. Horrela, estatuak egoera legal erakargarria eskainiko dute atzerriko kapitala erakartze aldera.
 - Zerga txikiagoak, langile eta kontsumitzaileen eskubideen murriztea eta abar. Horrela, lan merkatua malgu edo flexibleago suertatu (neoliberalismora bidean) eta lehiakortasuna sustatuz.
 - Izan ere, kapitala mantentzeaz gain atzerriko kapitala erakartzea ere izango dute helburu estatuak.
 - Dumping deritzo desregulazio bidez kapitala erakartzeari

- ***Deslokalizazioa:*** estatua ez bada gai kapitala erakarri edo duena mantentzeko kapitalak alde egingo du. Hots, enpresek alde egiten dute dauden lekuetatik eta joan egiten dira beste leku batzuetara, leku lehiakorragoetara.

Bi ondorio horiek berezko joera baten baitan gertatzen dira. Ordea, ideologia neoliberalak exageratu egiten du.

Hots, deslokalizazioaren mamua exageratzen du. Izan ere, sektore batzuk erraz joan daitezkeen arren, bestetzuek ezin dute. Zeren, berez, faktore askok baldintzatzen dute deslokalizazioa.

6.GAIA: GLOBALIZAZIO PROZESUA: EZAUGARRIAK

Sarrera

Globalizazioa ez da gertakizun bat, prozesu bat baizik. Horrenbestez, ezin da zehazki deskribatu, uneoro aldatzen baita.

GLOBALIZAZIOAREN ERAGIN POLITIKOAK

Globalizazioak izugarriko garrantzia izan zuen Estatu Soziala eta Estatu beraren krisian.

Izan ere, globalizazioak mugak suntsitu egiten ditu. Ordura arte, Estatuak neurri bateko subiranotasuna duen lurralde batetan finkatuta daude. Ordea, globalizazioak bere teknologia eta beste hainbat tresnen bidez, muga horiek eraginkortasuna kaltetzen du; hots, ez du uzten estatuen mugak mantentzen.

- Horren aurrean estatuak beren mugak sendotzen ahalegindu arren, praktikan ezinezkoa suertatu zitzaizen estatuei bere gain zuten boterea mantentzea.

Horrela, estatuen mugak indarra galdu ahala, estatuak beren independentziaren zati handi bat galtzen dute eta estatuen arteko interdependentzia sortzen da.

- Teorian estatuak independente izaten jarraitzen duten arren, praktikan guztiz baldintzatuta dago beren erabakimena. Gainera independentzia teoriko hori murriztu egiten da estatuak dituen zorrak areagotu ahala.
- Esan bezala, erabakimenaren baldintzapen hori estatuen arteko interdependentzian bilakatzen da: estatuen arteko mota askotako harremanak sendotu egiten dira eta estatuak boterea galtzen du hala.

Alderdi politikoen sistemarengan globalizazioaren eragina:

Pentsamendu neoliberalaren hazkundearekin batera, Estatu Sozialean zeuden alderdi ezkertiarren beherakada helduko da; hots, langile mugimenduak sortutako alderdiak ahuldu egingo dira.

Ondorioz, alderdi sisteman desoreka sortuko da: sistema ideologikoa bera ere kaotikoagoa bilakatuko da.

Era berean populismoa (*tendencia política que dice (defender los intereses y aspiraciones del pueblo)*) eta joera ultraeskuindarrak (*ideología política conservadora radical*) indartu egingo dira.

Izan ere, sortutako kaosak jendearengan ahultasuna eta izua sortuko du; eta indarrezko alderdien alde azalduko dira hauek.

GLOBALIZAZIOAREN ERAGIN EKONOMIKOAK:

Merkatua globalizatu egingo da eta interdependentzia ekonomikoa gailenduko da.

Horrela, faktore produktiboak mundu mailan berrantolatzen dira, erregioetan faktore eta produkzio ezberdinak antolatuz:

- Balio gehitu (plusbalio) gutxi duten produktuak eta lan esku asko behar duten produkzioak merkatu Asiatikoetara bideratuko dira.
- Europan bertan ere eman da berrantolaketa hori, eta Europa hegoaldea periferikoa bilakatu da.

Horren guztiaren ondorioz, estatu batzuk ahuldu egin dira eta bestetarik indar emergente bilakatu dira.

Ondorioak:

- Deslokalizazioa: produkzioa merkeen ateratzen den lekuetara bideratuko da (lan esku merkea dagoen eremuetara, adibidez). Hau sektore industrialean gertatuko da bereziki.
- Desregulazioa: lehia ekonomikoak “dumping soziala” eragingo du. Hots, estatuak baldintza hobek eskaini nahi izango dizkiete enpresei bertan koka daitezkeen. Oro har, deslokalizazioa gerta ez dadin burutzen dute hau estatuak.

Estatuaren interbentzioa mugatu egiten da: aurretik aipatu lez enpresei baldintza malguagoak eskaintze aldera.

- Halere, aipatzekoa da estatuak maiz esku-hartzen duela enpresei erraztasun fiskalak ematen.
- Hots, interbentzionismoa emango da baina kapitalaren alde (ezin zaio beraz “liberalismo” deitu neoliberalismoan ematen denari).
- Enpresek ingeniariak finantziariora joko dute: dirua leku batetik bestera mugituko dute, hori mugituaz dirua irabaztearren.

- Horrela paradisu fiskalak areagotu egingo dira eta ekonomiaren zati handi bat ekonomia beltza bilakatuko da. Ekonomia pirata ere dei diezaiokegu. Hemen kokatu dezakegu *ekonomia anarkokapitalista* kontzeptua.
- Honekin **kapitalismo finantziarioari** emango zaio hasiera: hots, ekonomiaren zatirik handiera jada ez da produkzioan oinarritzen; finantza (dirua izan eta mugitzea) eta espekulazioan baizik.

Horrela, ekonomiaren autonomizazioa ematen da.

- Sortuko den diskurtso ekonomiko hegemonikoa honakoa izango da: ekonomiaren helburua ez da helburu sozial eta politikoak gauzatzea. Ekonomiaren helburua ekonomia bera da, helburu propioak ditu.
- Horrek bat egingo du *fundamentalismo ekonomikoarekin*. Honen helburua ekonomia indartzea izango da, horretarako, gizartea modu jakin batetan antolatuta (diruaren interesen arabera).
 - Helburu gorena hazkundera izango da eta maiz ahaztu egiten da bizitza mantentzeak berak ere duen garrantzia.

GLOBALIZAZIOAREN ERAGIN SOZIALAK (GIZARTEA)

Globalizazioak eragin bikoitza izan zuen gizartean:

- Interkonexio handiagoa:

Jendea sarean egongo da, gizarte osoa egongo da konektatuta sarearen bidez. Sareak interdependentzia areagotzea dakar; hots, gizarte harremanak aldatu eta indartu egiten dira. (Saretik kanpo geratuz gero umezurtz sentituko gara).

Halere, aipagarria da interkonexio hori izan arren, maiz gure buruarekin harremanetan egoteko denborarik gabe uzten gaituela afera honek: ez dugu denborarik hartzen hausnartzeko, pentsatzeko ...

- Gizarte indibidualista:

Aipatutako konexio hori ematen den arren, azpimarratu beharrekoa da hori sarearen bidez egiten dela; alegia, ez dago harreman presentzialik.

- Denbora librerik eza:

Denbora librea deuseztatzen da: ez dago hutsunerik, sareak hutsuneak betetzen baititu.

- Bizitzaren merkantilizazioa:

Gizakiok gero eta kontsumitzaileagoak gara. Antzina txikiagoa zen kontsumoaren esparrua; ordea, kontsumoak gero eta espazio handiagoa du.

Gero eta denbora gehiago dedikatzen diogu kontsumoari eta beste ekintzei kentzen diegu denbora hori. Horrela, denbora librea galtzearen aferara itzultzen gara.

- Pribatutasunaren galera:

Gizartea gero eta indibidualistagoa den arren, pribatutasuna galtzen ari gara. Izan ere gero eta gehiagok zintzilikatzen du bere bizitza sarean etengabe: gure gustuak, gorputzak, bidaiak ... dena bilakatzen dugu publiko.

GLOBALIZAZIOAREN ERAGIN KULTURALAK:

Kultura ere globala bilakatu da. Ondorioz, edozein mugimendu kulturek eragin globala izaten du (lehen lokalera murrizten zen eragin hori).

- Hots, kultura lokalak globalizatu egin dira: sareak ikusarazten ditu mundu osoan.

Ondorioz, kontsumitzen dugun kultura ez da espresuki gure eremu lokalekoa izaten.

Era berean , kultura entretenimendu izatera igarotzen ari da. Lehen sentsibiltatea mugitzen zuena soilik hartzen zen kulturatzat; orain, ordea, edozeri deitzen diogu kultura (entretengarri suertatzen zaigulako).

Horren ondorioz, mundua gero eta homogeenagoa bilakatzen ari da (janzkera, musika, hizkera, janaria, gustuak ...). Ordea, era berean eta beste ikuspuntu batetik, mundua gero eta heterogeenagoa dela ere esan genezake aniztasun eta pluralitate handiagoa baitago.

7.GAIA: GLOBALIZAZIOA INTERNAZIONALIZAZIO BEZALA. BOTERE SUPRANAZIONALEN SORRERA

SARRERA

Globalizazioak eragin ezberdinak izan zituen. Horietako bat (eragin politikoa dena) estatua ahuldu eta boterea kentzea izan zen. Hori, bi modutan burutu zen bereziki:

- 1) Boterea gorantz pasatzea: erakunde supranazionaletara (ONU, Organización de las Naciones Unidas edo Nazio Batuen Erakundea; EB, Europar Batasuna)
- 2) Pribatizazioa edo desnazionalizazioaren bidez (ekonomikoki burutzen da)

Bada, bi horiek landuko ditugu.

1) NAZIOAREN BOTERE GALTZEA → SUPRANAZIONAL EDO INTERNAZIONALERA

Gaur egungo estatuak *formalki edo konbentzionalki* dira soberanoak; hots, estatu bakoitzari dagokio bere mugen baitako erabakiak hartzea eta beste estatuak ezin dute horretan interbenitu.

Ordea, erabakiak baldintzatuta daude (horrela, subiranotasuna formalki soilik existitzen da, teorikoki).

Historian zehar ez da izan estatuaren gaineko egiturarik (beren subiranotasuna muga gabekoa zen); eta erresumen arteko harremanak indar bidezko inposaketan oinarritzen ziren. Horrela izan zen, harik eta *Nazioarteko Zuzenbidea* sortu zen arte (≈ Erdi Aroa) .

Nazioarteko Zuzenbidea, sorrera.

XVI.mendean estatuaren boterearen mugak kuestionatzen hasi ziren. Izan ere, ordura arte boterea botere izate hutsagatik errespetatu behar zela sinesten zen. Horrela, une honetatik aurrera, zalantzan jarri zen legeen betebeharrak edo legitimitatea.

Hori egiten lehenak Espainiako Teologo Juristen Eskolako kideak izan ziren (Bartolomé de las Casas, Francisco de Vitoria eta abar). Nolatan sortu zen planteamendua?

Kolonizazioarekin batera, Europako potentziak Amerikara heldu eta inorenak ez ziren lurrekin egin zuten topo. Horrela, kolonizazioa burutzearren eta aberastasun egarriz,

armen bidezko astakeria, esklabutza eta bertako baliabideen esplotazioa gauzatu zituzten. Espainia eta Portugal oso gogor aritu ziren horretan.

Astakeria horien erreakzio gisa aipaturiko Espainiako Teologo Juristen Eskola sortu zuten hainbat teologok eta botere soberanoa kuestionatzeari ekin zioten.

- “Erregeen esana bete behar al da?”
- “Legeak ilegítimo izan daitezke”
- Hauen kasuan, legegikiko desobedientzia erlijioak justifikatzen zuen. Legeak ez errespetatzeaz gain, muturreko kasuetan soberanoa hiltzea ere (tiranizidioa) babesten zuten.

Hauen esanetan, bi motatako legeak bereiz zitezkeen:

- Lege positiboak: Errege edo subiranoak egindako legeak
- Lege naturalak: Jaun Goikoaren legea edo aginduak.

Bi horien arteko bateraezintasunak legitimitatean talka bat sortzen du. Horrela, Teologo hauen esanetan, positiboarekiko obedientzia hautsi egiten da. Izan ere, Jaun Goikoa Erregearen gain kokatzen zuten.

Esan bezala, bada, hortik abiatuta sortu zen *Nazioarteko Zuzenbidearen* ideia. Horrela:

Nazioarteko Zuzenbidea munduaren orden naturalean oinarritzen da, eta estatua orden horretara egokitu behar dela aldarrikatzen du.

- Hots, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera estatuen legeen gain beste lege batzuk egon behar dira.

Horrela bada, teorizazio horretan oinarrituta, Nazioarteko Zuzenbidea sortu zen (hasieran bederen katolizismoarekin erlazionatu zena).

Hurrengo urteetan zehar *Nazioarteko Zuzenbidearen* ideia zehaztuz joan zen:

Estatu bakoitzak betebeharrak ditu gizadi (humanidad) edo planeta osoarekiko; beraz, ezin ditu harremanak nahi bezala jorratu.

Aipagarria da, dena den, gaur egun ere *Nazioarteko Zuzenbidearen* praktika oso motela eta mugatua dela. Hots, zuzenbide primitiboa dela esan genezake.

Estatu baten zuzenbidea osatzen duten legeak lege sendoak dira eta inposatu egiten dira. Ordea, Nazioarteko zuzenbidearen legeak ahulagoak dira, ez baitute estatu baten gain inposiziorik burutzeko tresnarik. Hots, estatuen legeek badituzte nazioartekoek ez dituzten mekanismoak:

- Indarra: Aipatu izan dugun bezala legeen atzean indarraren erabileraren mehatxua dago. Estatuaren legeetan badago; ordea, nazioarteko legeetan ez.
- Estatu Zuzenbidean epaile eta polizia bezalakoak daude, Nazioartekoan ez.

Nola hasi zen *Nazioarteko Zuzenbidea*?

- Ohituretatik abiatuta: Erregeen mezularien adibidea har dezakegu; izan ere, onartu egin zen mezulariak zekarren mezua txarra izanagatik ere mezularia akabatzea ezegokia zela. Horrela, denborarekin, enbaxadoreek inmunitate diplomatikoa eskuratu dute.
- Nazioarteko hitzarmen edo itunetan oinarrituta: Estatuak elkarren artean hitz egin eta betebeharrak batzuk bereganatzea onartzen dute. Hau era “recíproco” batean burutzen da.

Ondorioa:

Estatuak, nazioarteko egituretatik, nahi dituzten betebeharrak soilik hartzen dituzte beren gain eta nahi duen heinean soilik konprometituko da: ez dago berez derrigortuta. Horrela, estata bera izango da bere burua zenbateraino murriztu nahi duen erabakiko duena.

- Dena den, aipagarria da urteen poderioz erakunde supranazionalak (eta horrekin, Nazioarteko Zuzenbidea) indartzeko joera dagoela; pauso motelez bada ere.

Nazioarteko Zuzenbideak zehaztutakoa betetzen ez bada, estatuak ez dute ondorio zehatz edo legalik pairatuko.

ERAKUNDE EDO EGITURA SUPRANAZIONALAK:

ONU (Organización de las Naciones Unidas) edo Nazio Batuen Erakundea

Sortu zen lehen aginte globala. Honen aurrekaria 1MGren ostean sortu zen "Nazioen Elkarte" edo Sociedad de Naciones izan zen (2MG bitarte iraun zuen).

1MG amaituta (munduaren historian izan zen lehen gerra globala) eta izan zituen ondorio latzak aintzat hartuta, estatuen gain legokeen erakunde bat sortzea erabaki zen; horrela, berriz ere antzeko txikizorian gerta ez zedin bermatzearren.

Borondate onez sortu zen arren, ez zuen bere helburua lortu (2MG dugu adibidez, Nazional Sozialismoen ondorio lez sortu zena bereziki) eta berriro ere sekulako sarraskia izan zen.

Horren ostean sortu zen ONU. Pixkanaka eta gaur egun arte ia estatu guztiak sartu dira erakunde honetan (salbuespenak salbuespen).

Honen helburu nagusia 3MG bat egon dadin saihestea eta estatuen jokaera (gehiegikeriei dagokienez bereziki) neurtu zein kontrolatzea da.

ONUren sorrera bere testuinguruaren baitan ulertu beharra dago:

Esan bezala, 2MGren ostean sortu zen. Horrela, honen oinarriak Gerran garaile izan zenak finkatu zituen:

- Alemania, Italia eta Japon galtzaile
- Gailendutakoek, estatu galtzaileen aurka jo zuten oinarriak finkatzerakoan

Horrela, ONUren alde on eta akatsak garai historiko horren harira datoz. Hots, sorreratik dago baldintzatuta bere oinarriak potentzia garaileek ezarritakoak baitira.

ONUren baitako funtzionamendua:

Estatu denak modu berean ikusten dira ONUren baitan; denek dute boto eskubide berbera. Ordea, badira egoera berezi batean dauden eta pribilejio batzuk dituzten estatuak ere:

- Frantzia
- AEB
- Ingalaterra
- Errusia
- Txina

Gainontzeko estatuek dituzten eskubideez gain, beto eskubidea dute horiek: hots, gehiengoak nahi duena errefusatzeko aukera dute. (Hona hemen ONUren baitako printzipio antidemokratiko bat).

- Alemaniaren kasua: paper garrantzitsua du Europa mailan, ez globalki ordea. Horrela, honek izan dezakeen eragina TROIKAREN gisako beste erakunde batzuen bidez burutzen da.

Horrek gaur egun dugun mapa geopolitiko sortuko du munduan: oreka geopolitiko bat sortuko da zeinetan 5 estatu horiek duten nagusitasuna.

Aipatutako guztiak geopolitikaren funtzionamendua baldintzatzen du, eta eragina izango du gerrak saihesterakoan: izan ere, estatu bat ez da eraso izango aharik eta "lagunak" baditu bost estatu horien artean.

ONUren helburuak:

- Kooperazioa: estatuen arteko akordio eta lankidetzaren bultzatzea.
- Bakearen mantenua: gerrak saiheste aldera. Ordea, zein da ONUren *bakerako sistema*?
 - Mugen ukiezintasunaren printzipioan oinarritzen da: hots, inor ezinda beste estatu baten mugen baitako arazoetan (arazo domestiko deritze) sartu.
 - Printzipio mugatua da: estatuen subiranotasuna murrizten du pixkatxo bat.
 - Estatuen arteko gatazkak era baketsuan konpon daitezen, ONUk tresna batzuk sortuko ditu
 - Geroago zehaztuko ditugun arren, kontutan izan behar da ONUk baduela tribunal bat (Nazioarteko Auzitegi Gorena) gatazka horien gestiorako. Ordea, bertan burutzen dena "jurisdicción voluntaria" da: tresna soilik da, ez da betebeharra.
 - ONUk zein kasutan onartuko du gerra bat?
 - ONU bera izango da gerra bat onartzea erabakiko duenean: aurretik erabaki hori estatuen esku zegoen soilik.

Zein izango dira gerra bat onartzearen arrazoiak?

- Estatu batek ONUren arauak apurtzea

Erabaki horiek *Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak* hartzen ditu: esan bezala, bertan, ONUko partaide guztiak daude eta boto bana dute.

Ordea, exekutatzeko hartu beharreko erabakietarako *Segurtasun Kontseilua* dago. Hor beti izango dira aipatutako bost estatuak (Frantzia, AEB, Ingalaterra, Errusia, Txina) eta beto eskubidea izango dute.

Segurtasun Kontseilua izango da, asanbladan erabakitakoaren arabera, interbentzioarekiko erabakiak hartuko dituena.

- Segurtasun kolektiboa: estatuak erabakiak kolektibo gisa hartzean datza (bereziki interbentzioari dagokionez).
- Indarraren erabilera deusezteia: esan bezala, ONUren helburu gorena indarririk ez baliatzean datza: ordea, salbuespena egiten da *defentsa legitimoan*.
 - o Zer da defentsa legitimoa? Zein dira bere mugak?

- Defentsa legitimoa izan dadin, beharrezkoa da alde aurreko eraso baten existentzia

Irakeko gerraren garaian Ameriketara, eraso argudiatzeko, “legitima defentsa preventiva” baliatu zen. Sekulako astakeria da, defentsa legitimoaren ukazioan oinarritzen baita. Erasorik ezean, beraz, ez da defentsa legitimozat jotzen.

- Proporzionaltasuna, “no se pueden matar moscas a cañonazos”. Eraso eta erantzunaren arteko proporzionaltasuna beharrezkoa da.

“Ojo por ojo”-ren itxura izan dezakeen arren, ez da hala. Horrez gain, biolentziak beti minimoa izan behar du; izan ere, gehiegikeriak biolentziaren erabilera ez legitimo edo defentsa ez legitimoa dakar.

ONUko kideak:

- Kide diren estatuak:

Esan genezake munduko estatu guztiak direna Nazio Batuen Erakundeko parte, 193 dira. Batzuk bestetarik baina txikiagoak dira, denbora gehiago edo gutxiago daramate erakundean ...

- Estatu begiraleak:

Badira estatukide oso ez diren bi estatu; hots, ez dute beste estatuak adina eskumen:

- o Vatikanoa
- o Palestina

Estatu begiralean deritze, ONUren ekintzetan parte hartzen duten arren ez baitute botoa emateko eskubiderik.

- Kide ez diren estatuak:

○ Errepublika Saharaia:

Estatu gisa kontsideratzen den arren eta ONUk Sahararen autodeterminaziorako eskubidea onartzen duen arren (Espainiaren kolonia izan zelako), ez da ONUren kide.

- Hemen koka daitezke Martxa Berdea izenez ezagutzen diren gertaerak, besteak beste. Marrokiarrak oinez abiatu ziren Saharako lurak okupatzera. Saharauek gerrillak antolatu zituzten aurka egitearren.

Kontuak kontu, Saharan ez da inoiz autodeterminaziorako erreferendumik egin.

○ Taiwan:

Antzina irla Txinatarra izan zen. Bere garaian, Gerra Zibila izan zen Txinan eta orduko gobernu (Txinako Gobernu Nazionalista) Komunistek garaitu zutenean, Taiwanera erbesteratu zen. Horrela, nolabait esatearren, bi Txina izan dira ordutik.

Taiwan estatu gisa onarturik dagoen eta bere kontrola berak duen arren, ONU ez du ordezkariarik Txinaren betoa dela eta. Txinaren esanetan, Txinak ordezkari bakarra aski du ONU.

○ Kosovo:

Jugoslavia estatu komunistako zati zen antzina. Komunismoaren erorketarekin batera, hainbat lurralde banandu egin ziren bertatik, Serbia adibidez. Era berean, ordea, Serbiatik alde egin zuen Kosovok. Mundu osoan 100 bat estatuk onartzen dute Kosovo estatu lez. Ordea, Txina eta Errusiaren betoa du eta ezin du ONU ordezkari izan beraz.

Azken herrialdeokiko esanenez, orokorrean, denak direla egoera nahiko gatazkatsua bizi duten lurraldeak. Gerra ezberdinak bizi izan dituzte bertan.

ONUren erakundeak:

- **Asanblea Orokorra, AO:** Parlamentu antzeko egitura, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko eremua. Estaturikide guztiak daude ordezkaturik eta bakoitzak boto bat du (Vatikanoa eta Palestina estatu begiraleek salbu, azaldu bai baina botorik ez dutenak).
- **Idazkari Orokorra, IO:** Nazio Batuek ordezkatzeko dituzte. Bilerak deitu eta nazioarteko harremanetan azaltzen da ONUk dituen aginduak bideratzen.
- **Segurtasun Kontseilua, SK:** Erakunde exekutibo garrantzitsua, gobernuak balitz bezala funtzionatzen duena. Hemen ez dira estatu guztiak biltzen; hots, 15 besterik ez. 15 horietatik 5 beto eskubidea duten estatuak dira beti (Frantzia, AEB, Ingalaterra, Errusia, Txina) eta ONUtik berezko duten indarra (indar faktikoa) onartu egiten zaie; gainontzeko 10ak, ordea, txandakatu egiten dira eta negoziazio bidez adosten dira.
- **Nazioarteko Justizia Auzitegia (La Hayakoa):** Holandako hiriburuan. Hemen aurkitzen da Nazioarteko Justizia Auzitegia. La Haya bi tribunal daude:
 - **Nazioarteko Justizia Auzitegia, TIJ,** ONUrena. Tribunalak izan baino bitartekaritza erakundeak da, ez baita tribunal obligatorioa. Estatuak beren arteko arazoak badituzte aukera dute tribunal horretara jo eta konpontzen ahalegintzeko. Jurisdikzio boluntarioa da. Nazioarteko arazoetarako bideratzen da.
 - La Haya bertan badago beste justizia jauregi bat: ez da ONUrena baina nazioartekoa da. **Nazioarteko Gorte Penalak, CPI.** Gorte zigortzailea da, delitu jakin batzuk bideratzen dituena. Izatez, delituaren definizioa estatuaren baitakoa da (delituak tokian tokikoak dira, abortuaren adibidea). Tribunal honen justifikaziorako ideia honakoa da: delitu normaletatik aparte badira mundu guztiak delitu kontsideratu behar lituzkeen delituak; ez baitira egiten soilik gizarte baten kontra, baizik gizaki guztien kontra, humanitatearen aurka: hilketak, masiboko genozidioak, sarraskiak.Honen existentzia oso garrantzitsua da. Izan ere, demagun:
 - Estatu batek genozidio edo sarraski hori justifikatzea edo botereak egoera inmunea sortzea (diktaduretan kasu).

- Amnistia “ley de punto final” bat burutzea, zeinetan sistema politikoan emandako aldaketaren ondorioz ordura artekoa ahaztu eta “borrón y cuenta nueva” burutzen den.
- Delituak preskribitzea saihesteko ere balio du; izan ere, honen arabera, genozidioa ezin da preskribitu (inprescriptible).

Esan bezala, bada, hori guztia gerta ez zedin sortu zen Nazioarteko Gorte Penala.

Tribunal honek aurrekariak izan ditu. Nahiz eta tribunalak nazionalak izan diren, IMGrekin batera Tribunal Internazionalak (Ad Hoc, helburu jakin baterako sortuak) sortu ziren: *Tribunal de Nuremberg* eta *Tribunal de Tokio*.

- Nuremberg: Naziek egindako gerra delitua epaitzeko. Potentzia irabazleek sortu zuten. Lege penal barik epaitzen da ez baitago nazioarteko kode penalik.
- Tokio: 2MGren ostean sortu zen, bertan izan ziren delituak epaitzeko.
- Tribunal Jugoslavia.

Horiek, Nazioarteko Gorte Penalaren sorrerarekin, Ad Hoc izatetik egonkor izatera igarotzen dira.

Nazioarteko Gorte Penalaren sorreran adibidetzat har dezakegu Garzón: izan ere, Txilen Pinochet diktadoreari amnistia eman zioten. Ordea, hildakoen artean Espainiarrak ere bazirenez, Garzonek INTERPOLi eskatu zion Pinochet epaitzeko baimena. Gerora kontua korapilatu zen arren, esan genezake bera izan zela Nazioarteko Gorte Penalaren sustatzaileetako bat.

Halere, gorte honek ez du jurisdikziorik mundu osoan: hots, estatu batzuek ez dute onartzen eta badira beste estatuekin erlazionatzerakoan hori ez onartzea exigitzen duten estatuak ere. Gaur egun, gutxi gorabehera, 90 bat estatuk onartzen dute Nazioarteko Gorte Penala.

Jurisdikziorik ematen ez dioten estatuak, oro har, genozidioak pairatzen dituzten estatuak dira. Dena den, ez dira guztiz libre geratzen.

Europar Batasuna (EB)

Europarren arteko gerrak XX. mendean gerra globalak bihurtu ziren. Bi gerra egon dira, Europarren artean sortuak gero mundu osoan zehar banatu zirenak. Bi gerrek dute lotura garrantzitsu bat Mundu Gerren testuinguruarekin. Beraz, NBERen gisan hau ere Mundu Gerrek sortutako krisi baten ondorioz sortuak dira, hau da, Alemania eta Frantziaren arteko iskanbiletatik sortuak.

Baina, Europan betidanik izan dira arazo geopolitikoak. II. Mundu Gerran gertatuz zen garrantzitsuen gizakiak bere esku duela indar nuklearraren kontrola. Hala gerran indar nuklearra erabiltzeak munduan gizakia desagertarazteko aukera ematen dio gizakiari. Beraz, hemen orain arteko egoera birplanteatuko da.

II. MG ostean hainbat arazo izango dira, Europa osoa desaginda geratuko delako. Beraz, III. MG bat ez gertatzeko borrokatzen dute bomba nuklearrak existitzen direlako. Honek Alemania eta Frantziaren arteko betidaniko arazoak beste er batera bideratzeko plana sortuko dute. Ondorioz, gerra arriskua saihesteko kooperazioa bultzatuko duten erakundeak sortuko dira.

Europar Batasunaren *aurrekariak*:

1951 urtean Pariseko Ituna sinatu zen. Horren ondorioz, *CECA* edo “*ikatzaren eta burdinaren komunitatea*” sortu zen: Alemania, Italia, Frantzia eta Benelux (Holanda, Belgika eta Luxenburgo) biltzen ziren bertan. Honen funtzioa burdin eta ikatzaren sektoreen erregulazioa burutzea izan zen, europarren arteko kooperazioa sustatzen aldera.

1957 urtean Erromako Ituna sinatu zen. Bertan bi elkarte europar berri sortu ziren: *EURATOM*, energia atomikoaren erabilera erregulatzeko aginte bateratua; eta *Europar Ekonomia Elkartea* (EEE), aurrekaririk garrantzitsuenak.

- EEE garrantzitsuenak da CECA eta EURATOM arazo militarrekin lotuta daudelako eta, lehen arazo militarrek garrantzitsuak ziren arren, gaur egun ekonomiaren gaia delako garrantzizkoena.

Une horretan, Britainia Handia zen falta zen herrialde bakarra. Horrela, BH batasun hori oztokatzen ahalegindu da, eta beste erakunde bat sortzea proposatuko du: *Europako Kontseilua*.

Hau kooperazio erakunde bat da, bigunagoa, zeinetan ez dagoen besteetan bezainbesteko inplikazio beharrik (subiranotasuna neurri handiago batean mantendu ahal izango da). Hemen denen artean adostuko dira erabakiak eta estatu guztien beto eskubidea errespetatuko da.

Kontseiluaren zeregina kooperazioa bultzatzea da, eta lan garrantzitsua egin du giza eskubideen arloari dagokionez.

Honen baitan dago *Eskubideen Europar Konbentzioa* (Europar Kontseiluak sortutako erakundea). Honek eskubide batzuk egingo ditu europar estatuentzat, estatuak berak dituenez gain. Konbentzio hau nahi duten europar estatuek sinatuko dute, eta gainera, boterea emango diote sortuko den aginte bati: *Giza Eskubideen Europar Auzitegia (Estrasburgoko Tribunalala)*.

Hau izango da Europa mailan lehen aldiz nazioarteko eskubideen aitorten bat sortuko duen erakundea. Bertan, estatuen tribunalaz gain beste tribunal bat ezarriko da. Azken honek, eskubidea zapaldua izan den edota arazorik izan den behatuko du; hots, ez da estatu jakin baten konstituziora mugatuko.

Tribunal honek ez du inolako zerikusirik izango Europar Batasunarekin. Izan ere, Europar Batasunak badu bere tribunalala, *Luxenburgokoa*.

Hasieran, Europar Batasuna ez zen izen horrekin ezaguna. “Europar Elkarteak” izenez baizik. 1967an hiru elkarteak (CECA, EUROATOM eta EEE) batu eta “elkarte” deituko zai. Ordea, 1993an Europar Batasuna sortuko da.

Prozesu honen baitan erakunde indartsu bakarra sortuko da, gero eta handiagoa egingo dena eta 6 estatu izatetik gaur egungo 27 izatera igaroko dena. Gainera, burutzen dituen zeregin, presupuesto eta abarrak gero eta pisutsuagoak dira.

Europar Batasunaren izaera:

Oso zaila da EB definitzea, munduan honen tankerako erakunde gehiagorik ez egoteaz gain, denboraren poderioz aldatuz baitoa bere izaera: gero eta kide eta kompetentzia gehiago ditu.

Izatez, nazioarteko elkarte gisa sortu zen arren, gaur egun afera sakonagoetan aritzen da:

Nazioarteko ezaugarriak ditu, baita federazio baten ezaugarriak ere. Horrenbestez, nazioarteko elkarte bat baina askoz ere integratuagoa dago, baina, era berea, estatu bat baino gutxiago.

Bestetzuek konfederazio lez definitzen dute (ez du zentzurik munduan ez baita konfederaziorik)

Europar Batasunaren sorrera:

Existitze diren konfederazioak estatuak batzearen ondorioz existitzen dira. Izan ere, EB sortu zenean, inork ez zuen subiranotasunik galdu nahi. Hortaz, ez zen inon halakorik idatzi eta tresna batzuk sortu ziren. Gerora, kompetentzia gehiago bereganatu eta botere gehiago lortuko du. Ondorioz, erakunde bat sortu eta bere betebeharretan segituko dute; hots, zeregin bat sortuko da eta zeregin horrek ere bidea egingo du beharrianak sortu eta erabakiak bultzatuz. Orduan, erakunde berria bere botereak bereganatuz sortuko da, eta Europar Batasuna horrelaxe sendotuko da.

Europar Batasunak zeregin eta auzitegi batzuk dituzte: auzitegi horien bidez, EBren boterea sendotu egingo da. Horien helburua “*implied power*” edo botere implizituak dira; hots, helburuak lortzeko zabaldu beharraz, esparruak bereganatzea.

Helburuak lortzeko zabaldu beharra dugunez, hasiera batean nireak ez ziren inguruko esparru batzuk neureganatuko ditut.

AEBrako Auzitegi Gorenak maiz erabili izan du hau. Auzitegi hau, *Luxenburgoko Auzitegia* da. Honek EBri aurretik aipatu gabeko botere batzuk emango dizkio, eta bere boterea inposatu egingo da estatukideen gain.

Laburbilduz, esan genezake egungo EBk izaera oso arraroa duela: ez du ejertzito propiorik (tropa txiki batzuk salbu), eta ez ditu Nazioarteko Harremanak eramaten. Ordea, maiz estatu bat bailitzan funtzionatzen du eta estatuen kompetentzien barne dauden erabakiak hartzen ditu (hala nola arlo ekonomikoan: estatuak berez dirua egiteko boterea duten arren, EBko estatuak botere hori galdu egin dute).

Europar Batasunaren erakundeak:

EBk eskumen bereziak ditu mota askotako erabakiak hartzen dituelako.

- Erabaki batzuk hartzeko derrigorrezkoa da guztien adostasuna (unanimidad)
- Gehiengoaren arabera hartzen diren erabakietan, estatu bakoitzak boto kopuru jakin bat izango du duen biztanle kopuruaren arabera.
- Konforme ez dauden estatuak ere erabakiak bete beharko dituzte
- Era berean, betorako eskubidea izango dute estatuak. Ordea, blokeorako gutxiengo bat beharrezkoa izango da.

EBren baitako botereen banaketa estatuen baitakoaren antzekoa da (3 botere daude: parlamentua, gobernua eta auzitegia)

- **Europar Parlamentua:** Estatuak duten parlamentuaren (parlamentu tipikoa) antzekoa da baina botere txikiagoa du. Horrela, parlamentua da, baina ez parlamentu osoa. Hots, EPk ezin ditu erabaki asko bere kabuz hartu eta beste erakunde baten beharra izaten du legeak onartu ahal izateko. Beraz, parlamentu tipikoen izaera berdina duen arren, betekizun mugatuagoa du.
Gaur egun, Europako herritarren hauteskunde berezi batzuen bidez hautatzen dute, eta estatu bakoitzak bere ordezkariak daramatza bertara. Ordezkari horiek proportzionalki banatuta egongo dira (lehen esan bezala, estatu bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera).
Parlamentu erdia Estrasburgon dago kokatuta eta beste erdia Bruselan. Lan handiena Bruselan egiten da, sede nagusia Estrasburgokoa den arren.
- **Justizia Auzitegia:** Luxenburgon kokatzen da, eta ez du Estrasburgoko Tribunalarekin inongo zerikusirik. Bertan arazo ekonomikoen inguruko kontuez jarduten dute.
- **Gobernua:** EBn ez dago gobernu zehatzik; hots, hiru gobernutan bereizten da:
 - **Europar Batzordea:** Komisarioak biltzen dira bertan, eta komisario bakoitza bere batzordeaz arduratzen da. Komisario horiek industriarako, harremanetarako eta abarretarako dira. Horrek gobernuetako banaketarekin antza handia duen arren, ez ditu gobernu baten betekizun osoak.
 - Batzordeari dagokio ekimen legegilea; hots, Europako legeak proposatzeko aukera.
 - Batzordea da estatu baten burokraziaren arduradun nagusia.
 - Bulego oro batzordeko komisioren barnean dago, eta komisiio honi dagokio administrazio horiek kudeaketa.
 - Batzordearen ardura da Europako itunen betearazpena.
 - **Europar Batasuneko Kontseilua (Ministroen Kontseilua):** Europar Parlamentuarekin batera, honi dagozkio erabakirik garrantzitsuenak. Kontseiluko kideak ez daude Europaren aginduetara, estatuen aginduetara baizik. Horrela, Industriaren inguruko erabaki bat hartu behar bada, estatu guztietako industria ministroak batuko dira. Hartu behar den erabakiaren araberrako ministroak batuko dira, beraz.
Erakunde hau ez da berez europarra, erabakiak gobernu ezberdinek batera hartzen baitituzte. Beraz, erabaki intergubernamentalak (gobernu ezberdinetako ordezkariak osatutakoak) deritze honakooi.

- **Europar Kontseilua (Cumbre de jefes de Estado y de Gobierno):** Hau ez dute adar ezberdinetako ministroek osatzen, gobernuetako Presidenteeek baizik.
Bertan, sektore jakin batekoak ez diren erabakiak hartuko dira. Honen izaera nazioarteko erakundeen izaeraren oso antzekoa da, hau da, logika nazioartekoa da, intergubernamental.

Aipatutakook dira EBren erakunde nagusiak. Dena den, badira gehiago.

EBen antolamendua:

EB modu demokratiko batean dago antolatuta; ordea, baditu defizit demokratiko (defizit sozial) batzuk ere, zeinetan estatuak baino kontrol demokratikoagoa dagoen.

Hori faktore ezberdinen ondorioz gertatzen da:

- EBn ez da iritzi publiko bat sortu; hots, jendeak ez du EB hartzen diren erabakietan inolako interesik
- Jende gehienak uste du bere politika bere herrialdera mugatzen dela.
- Hedabide europarren gabeziak ere jendea tokian tokiko hedabideak baliatzera mugatzen du.
- Horrela, iritzirik ez dagoenez, erakundeekiko kontrola urria da.

Botere banaketarik ez dagoen arren, badira *Lobby-ak* (presio taldeak). Horiek erabakiak hartu behar dituzten pertsonen botere guneak presionatzen dituzte.

EBen betekizunak:

- Merkatu bakarria sortzea

Europar Batasunak merkatu bakarria suposatzen du.

2MGren ostean (Pariseko Ituna), EBk suposatu duena estatuen arteko mugak kendu eta aginte komunaren ezartzea izan da. Horrela, urratsik handienak batasun ekonomikoaren bidean eman ditu. Izan ere, hasieran ez zegoen batasun politikoa sortzeko baliabiderik (estatuek ez baitzuten subiranotasunik galdu nahi). Horrela, EBn bateratze (unifikazio) prozesua batasun ekonomikotik abiatu zen, nolabait, horrek aurrerantzean batasun politikoa eragingo zuelakoan.

Oinarriak:

- **Aduanen batasuna:** estatuen artean existitzen ziren aduanak edo muga ekonomikoak kentzean datza.

- Lehenengo kenduko direnak **arantzelak** dira (aduna pasatzean merkatua pasatzeagatik ordaintzen den zerga; honen helburua kanpoko produktuak sartu ez eta bertako produktuen sustatzea izango da, eta oztopoa da merkataritza librerako).
- Ordea, kanpora begirako muga edo arantzelak jarriko dituzte. Hots, EB izango den batasun ekonomikoaren barruan sartzerakoan ordaindu behar izango dira arantzelak, eta ez EBren baitan egindako mugimenduetan. Horren ondorioz, EBko estatuen arteko merkataritza indartu egingo da.

Halere, merkataritza indartzeko ez da aski arantzelak kentzea. Beste arazo batzuk daude:

- Moneta (arazo teknikoa)
 - Arauen ezberdintasuna. Arauek estandarrak sortzen dituzte produkzioari eta bete beharreko baldintzei dagokienez. Produkzioa araututa dago estatu orotan eta gerta liteke beren arteko ezberdintasunak suertatu eta merkataritza oztopatzea. Hots, infraestruturaz edo azpiegituraz ez da egokituta egongo.
- Aduanak kendu arren beste arazo batzuk zeudela ikusten hasi zirenean, **harmonizazio lege** deiturikoak egiten hasi ziren: horrela, aurretik aipatutako arazoei konponbideak emateko arauak ezartzen dira, hots, produkzio eta komertzializazioari dagokionez EB osoan baldintza berak sortze aldera sortutako arauak izango dira.
Halere, arazoak izango dira oraindik batasun ekonomikorako.
 - **Merkatuaren faktore batzuen askapena:** EBk espazio ekonomiko bateratua bultzatzeko (eta ez soilik estatuen arteko merkataritza); hots, merkatu bakarra sortzen aldera, askatasun batzuk sortzen dira. Askatasun komunitario izenez ezagutzen dira eta lau askatasun dira:
 - Kapitalen askatasuna
 - Zerbitzuen mugitzeko askatasuna
 - Lanaren mugitzeko askatasuna
 - Produktuen mugitzeko askatasuna

Honekin guztiarekin ia oso osorik kentzen ditugu mugak . Horrela, onartu egiten da estatu kideetako pertsona eta gauzak Europar Batasunean libreki mugitzea. Zirkulazio askatasuna edo mugitzeko askatasuna sustatzen da.

Hori ez da mundu mailan existitzen; orokorrean, estatu bakoitzaren barruan existitzen da soilik. GEAUean (Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalean) Nazio Batuek onartu egiten dute zirkulazio askatasuna, pertsonak jaio diren lekuan

jarraitzera behartuta ez daudela onartzen dute teorian. Baina, kontraesan gogor bat topa dezakegu hemen. Izan ere, Nazio Batuek estatuak soberano direla dio eta soberano diren neurrian beraiek dira beren estatuan nor bizi daitekeen erabakitzen dutenak. Faltako litzatekeena da estatuen gaineko eragina nolabait pertsonak onartzera behartzeko. Horrela, zirkulazio askatasun hori eskubide teoriko soilik bilakatzen da. Horrela, praktikan ez dago nazioartean mugitzeko askatasunik.

Ondorioz, orokorrean dirua dutenek izango dute mugitzeko aukera. Izan ere, estatuak dirua jartzen dute muga hori zeharkatzeko bide lez. Gainera, oztupoak jartzen dizkieke etorkinei (estatu aberatsek eta populazio gehiegizkoa dutenek). Hots, laburbilduz, estatu bakoitzak erabakitzen du zein legeren arabera zehaztu jendearen zirkulazioa.

Ordea, EBren baitan osoki bermatuta dago zirkulazio eskubidea. Horrela, EBko biztanle orok du eskubidea EBko edozein estatutan bizi, lan egin, zerbitzuak eman eta abar egiteko.

- **Txanpona:** Dirua batzea. Ez da batere erraza, izan ere, estatuen arteko adostasuna lortu behar da bakoitzak duen moneta alde batera uzteko. Dirua estatuen subiranotasunarekin erlazionatzen da; esan baikenezake subiranotasunaren ezaugarri nagusia dela (lehen ejertzitza zena). Hasiera batean ECU erabili zuten, txanpon fiktizio gisa (European Currency Unite, frantsesez babesa esan nahi duen hitza). Gerora, ordea, EUROa sortu zen; EBko txanpon bateratu eta bakarra izango dena. Estatuak, berez, badute eskubidea politika monetarioa egiteko: munduko estatuetan gobernuaren esku dago hori, ordea, EBko parte diren estatuetan ez. Hots, beraiek erabaki dezakete zenbat diru egin, gehiago ala gutxiago. Hori ordea estatuak duen aberastasunaren arabera egin beharko da. Gobernuak dirua egiten badute aberastasunik izan gabe, monetak balioa galtzen du. Eta horrela, munduko beste txanponekin trukatzekoan, gutxiago emango didate. Politika monetarioa da hori: moneta eta aberastasunaren arteko erlazioan aritzea, hots, diru fisikoaren eta diruaren balioaren artean dagoen loturan. Horrela, hiru erabaki har daitezke:

- Aberastasuna baino txanpon gehiago ateratzea: hau eginez gero badakigu diruak balioa galduko duela epe luzera (proceso de devaluación de la moneda o de inflación del producto). Epe laburrean, ordea, diru gehiago izatearen fikzioa sortuko da. Horrela, estatuak epe laburrean zerbait lortu nahi duenean baliatuko du hau, adibidez, salerosketak areagotzeko. Ongi irten daiteke hau

burutzea ekonomiak berak ere gora egin eta orekara heldu ezkerro.
Ekonomia berotze aldera.

- Oreka
- Aberastasuna baino txanpon gutxiago ateratzea: hau eginez gero diruaren balioa handituko da epe luzera, desoreka handia. Hau ongi dator ekonomiaren beherakada bat aurreikusten denean. Ekonomia hozte aldera.

Krisi bat aurreikusten denean, krisia koiuntura edo faktoriala dela jakinez gero ongi legoke ekonomia berotzen ahalegintzea txanpon gehiago aterata. Ordea, krisia epe luzekoa izango dela aurreikusiz gero, hobe hoztea txanpon gutxiago aterata.

Hiru **politika monetario** mota daude:

1) *Europako Banku Zentralaren helburu bakarra: oreka eta egonkortasuna*

Alemaniko banku zentrala, tradizionalki, autonomoa izan da gobernuarengandik. Gobernu zentralak zuen agindua politika monetarioan oreka mantentzea zen; hots, ekonomiak zuen indarra baino diru gehiagorik ez ateratzea (ekonomia ez berotzea). Ordea, beste lurralde batzuetan ez da hori egin eta politika monetarioa baliatu izan ohi da.

Horrela, EBren sorreran, munduko estatu gehienak baliatzen zuten politika monetarioa Alemaniak izan ezik. Horrela, euroa ezartzerakoan Alemaniaren modeloa jarraitzea deliberatu zen; hots, bertako markoa zen unean txanponik sendoena.

Izan ere, txanpona sendoa izan dadin (gorabehera handirik gabekoa) politika monetarioa gobernutik kanpo utzi beharra dago. Horrela, € sortu zenean Alemaniako ereduari jarraitu eta gobernutik kanpo mantentzen da.

Europako Banku Zentralak, horrela, arau bat du zeinak dioen monetak ez duela devaluaziorik jasan behar. Hots: sortu zenean jarri zitzaion helburua egonkortasuna bilatzea zen.

Euroaren (€) ezarpenak nolabaiteko nagusitasuna ekarri dio Alemaniari. Era berean, Europan badira euroa onartu ez duten herrialdeak. Horren adibidea dugu Britainia Handia eta bertako Libra.

2) *Estatu batetik besterako banku eta zerga ezberdintasuna*

Europako txanponaren batasuna gabezia batzuekin egin zen: ez dira ez banku ezta zerga sistemak ere batzen. Horrela, estatu bakoitzak baldintza ezberdinak izango ditu eta zaildu egingo da oreka.

3) *Banku Zentralak ez dio Gobernuari dirurik emango*

Banku Zentralak ez die dirurik emango gobernuei, ez baitu eurengan konfiantzarik. Horrela, dirua bankuei soilik utziko die. Ondorioz, gobernuek arazorik badute, diru hori bertako bankuei eskatu behar diete.

Salbuespen gisa soilik bideratuko zaie dirua gobernuei zuzenean.

Euroa eta 2008ko krisi ekonomikoa

Krisi honek sistema finantzario eta bankuetan du jatorria. Esan liteke pertsona partikularren zorrak estatuaren zor bilakatu direla.

2008ko krisia oso krisi sakona izan da, batez ere herrialde aberatsetan antzeman dena; hots, hazkunde ekonomikoak normal dirau beste herrialdeetan eta kaltetuenak AEB eta EBtako herrialdeak izango dira.

Askotan aditzen da krisia iruzurra hutsa dela. Izan ere, biak dira egia:

Krisia + iruzurra

Krisiaren ondorioei dagokienez, honakoa esan genezake:

- Herrialde batzuetan hazkunde ekonomikoaren gelditzea dakar
- Bestalde, herrialde horien baitan aldaketa ekonomiko handi bat eman eta desoreka zein ezberdintasun ekonomikoen handitzea dakar (krisia aberatsenen interesen arabera bideratzen da, alegia)

Krisiaren sorrera:

Leopoldo Abadiaren "La crisis explicada con una sonrisa"

- Bajan mucho los intereses en los Estados Unidos
- Los bancos necesitan hacer negocio, pero con los intereses bajos no pueden
- Por lo cual, los bancos necesitan buscar un tipo de personas a las que hipotecar
- Esas personas son “ninjas”, gente que no tiene nada
- Así, los bancos americanos les prestan dinero
- Los ninjas empiezan a vivir la vida, ya que metiendo 70 reciben 100
- Los bancos creen que el precio de las viviendas seguirán aumentando
- En cambio, cuando se agotó el dinero en América, y a raíz de la globalización, empezaron en busca de dinero en diferentes sitios del mundo. Cómo? Vendiendo
 - o Hipotecas buenas
 - o Regulares
 - o Pésimas
- Esas últimas se las vendieron a todos los bancos del mundo
- Así, y con esas relaciones interbancarias, nos topamos con el término “euribor” que hace referencia a los intereses que surgen en esas transacciones.
- Dichos intereses hacen que en esos bancos del mundo haya que pagar más intereses
 - o Nuestra nómina se la está gastando un ninja en cinco minutos

Krisia AEBn hasi zen. Oro har, bizi dugun sistemak berak oinarri duen printzipio baten ondorio izan zen: jendeak ahalik eta zor handiena izatean datza printzipioa.

Horrekin, “burbuila inmobiliarioa” sortu zen; hots, bankuek diru mordoa ematen zioten jendeari etxeak eros zitzaten (etxeak berak balio zuena baino gehiago ere ematen zieten). Izan ere, etxeak garestitzea zegoen aurreikusita eta, horrela, jende horrek ordaindu ezean, bankuek kaleratu, eta etxe horiek are garestiago saltzeko aukera izango lukete.

Orduan, “creditos supprime” izeneko kreditu kaxkarrak sortu eta zabaldu egin ziren munduko banku guztietara, sistema bankario guztia arriskuz bete eta zikinduz. Ondorioz, bankuek sinesgarritasun osoa galdu zuten, eta baita diruak ere era berean. Krisia sortzen da bankuek ez baitute aipatzen duten diru guztia.

Krisi horrek eragin berezi bat izango du Europan; hots, euroarengan izango duen eragina.

Krisiaren ezauqarriak:

Esan genuen bezala, Euroa aitzina Alemaniako Marcoa antolatzen bezala antolatzen da. Txanpona oso gogor eta sendoa izatean datza, oso jasagarria. Horretarako, diziplina monetarioa baliatuz inflazioa saihestu beharra dago.

Funtsa: ***aurrekontu orekatuak edo defizit eza***. Diru gehiegi ez gastatzea, gutxi gorabehera zergetatik irteten dena. Bankuei edo munduko beste estatuei dirurik ez eskatzea.

Praktika hori Alemanian historikoki eman da eta EBri inposatu egiten zaio euroaren sorrerarekin: agindu jakin batzuen bitartez. Beti ere, esan bezala, txanpon indartsu bat mantentze aldera.

Hots, diziplina presupuestarioa sortzen da EBren baitan, teorian. Praktikan, ordea, ez da hori horrela gertatzen.

Mundu guztiak pentsatzen zuen zorra nahiko mugatuta zegoela; ordea, ez zen horrela; ***zorra zirudiena baino handiagoa zen***. Izan ere:

- Baziren zor publikoa ezkutatzen zuten estatuak: estatuaren zorra zirudiena baina handiagoa zen, eta zati bat ezkutatu egiten zen. Hau Europako hegoaldeko estatuetan eman zen nagusiki. Portugal, Espainia, Italia, Irlanda.
 - Ustelkeria politikoaren ondorioz
 - Gestio txarraren ondorioz
 - Defizit txikia egotearen betebeharra estuegia zelako beharbada
- Zor publikoarekin batera zor pribatua ere badago, zeina oso handia den. Pertsona partikularrak zorretan zeharo sartuta daude.
 - Hipotekak eman baitziren oso erraz
 - Gainera, estatuak, bereganatu egingo du hainbat zor pribatu. Horrela, publiko bilakatu eta zor publikoa izugarri handituko da
 - Hau estatuak justifikatzen du esanez estatuak nolabait bermatu egin behar duela sistema finantzarioa. Izan ere, bankuei ordaindu ez eta bankua erortzen bada, galtzen inbertsoreak aterako lirateke, hots, “jendea”. Horrexegatik erreskatatzen dituzte estatuek.

- Hau ere estatuaren arabera maila ezberdinean ematen da. AEBtan bankuei emandako diru publikoa berreskuratu ohi du estatuak. Espainiak asko jota %20a soilik berreskuratzen da. Horrela, Espainian zorraren %80a zor publiko bilakatu da.
 - Dena den, hainbat estatuk ez die laguntzarik eman bankuei, ez ditu erreskatatu. Islandia da adibidea. Zutabe hobeak baliatu zituzten.
- Estatua hain zordun bilakatuko da, ez dela gai izango zor duen dirua bezainbeste ordaintzeko kreditu lortzeko.
 - Nire hipotekaren adibidea. Birfinantzazioa, epearen luzatzea.
 - Fondo putreak? Fondo batzuk zeinak galtzear edo oso ahul dauden zor publikoaren alorretan inbertitzen dena
 - Estatu batek zorrak eta ordaintzeko ezintasuna dituela jakiten denean; hots, jendeak horren berri duenean, konfiantza galdu eta zorra handiagotu egiten da.
 - Horrekin denarekin, espekulazioa, saturazioa eta ustelkeria.

Horren gain, aipagarria da Europak ez diela zuzenean estatuei dirurik ematen; baizik eta bankuei. Horrela, Estatu batek bere zorra gestionatzeko dirua eskatzen duenean, ez dira baldintza berberak emango. Horren ondorioz, Europako estatu periferikoek arazoak izango dituzte beren zorra ordaintzeko.

- Une horretan azaltzen da **TROIKAren interbentzioa**. Elementu objektiboak dituen krisia ematen denean, botere aldaketa bat ematen da Europa barruan.
- Europa barruan lehentasuna izango du La TROIKA Monetaria izenekoak.
 - Hirukoteari egiten dio erreferentzia
 - Erakunde erdiinformal bati dagokio kasu honetan, hiru erakunderen ekimen bateratu bati erantzuten diona
 - Europar Batzordea (Gobernuaren antzekoa)
 - Europako Banku Zentrala
 - Nazioarteko Fondo Monetarioa (FMI)

- TROIKA izango da, beraz, estatueta interbentzioa burutzen duena: los hombres de negro. Erreskatea lortu nahi badute, estatuiek erakunde horien interbentzioa onartu beharko dute.
- Horrela, krisi ekonomikoaren ondorioz berrantolaketa neoliberalago bat hartuko du. Hots, berez beste erakunde batzuk hartu beharreko erabakiak TROIKAk hartuko ditu; zeinaren atzean alemaniaren sektore finantzarioaren interesak dauden.
- Erabaki bat hartuko da: ez da birfinantzaziorik emango. Ez da zorrik altuenak dituztenen zorrak ordaintzeko dirurik emango. Zorra ordaintzeko dirua jasotzeko baldintza gogor batzuk onartu beharko dituzte estatuiek, eta orduan soilik jasoko dute dirua.
 - Baldintza horiek joera neoliberal gogorrekoak dira
 - Dirua emango zaie, bankuen bitartez (ez da zuzenean estatueta joango). Estatuiek, gerora, diru hori eskatu beharko diete bankuei.
 - Beste modu bat da Europako diru publiko hori baketara pasatzeko. Zati batekin geratzen dira bankuak.
- Troikaren **exigentziak**:
 - Zorra lehenbailehen murrizteko konpromisoa, defizita murriztea. Ateratzen duten eta gastatzen duten diruaren arteko desoreka konpontzea.
 - Proposamenak izango dira: Ekonomia berotuko dutelakoan (gezurra dela ikusiko dugu gero)
 - Langileei soldatak murriztea (honek ekonomia lehiakorragoa bilakatuko duela uste baitu)
 - Gastu publikoa murriztea
 - Murrizketa horiek neoliberalen nahien arabera izango dira: horrela, ez da ejertzitoan murrizketarik izango. Osasuna, hezkuntza eta abarrea baizik.
 - Hori guztiaren ondorioz berrantolaketa ekonomikoaz gain politikoa ere ematen da. Ongizate estatua zeharo desagerrarazten da.

Josek esan duena aintzat hartu. Zorraren ondorioztat pintatzen diguten hori da, zehazki, zorraren helburua. Horrela, FMI popatik hartzera bidaltzea da aukera.

Zorrek ordaintzeko erraztasunik ez emateak hainbat ondorio izan ditu. Orokorrean, ekonomia osoarentzat muga lez azaltzen direnak. Areagotu egin dira estatuen arteko eta estatuen barneko ezberdintasunak.

Laburbilduz, esan genezake, gainera, TROIKAren interbentzio ekonomikoa interbentzio politiko bilakatzen dela. Hots, praktikan, krisia aprobetxatuz, berrantolaketa politiko bat sortzen da: TROIKA da Europa mailak kontrola hartzen duena.

- Italian, adibidez, Berlusconiaren lekuan beste presidente bat jartzera derrigortu zuten
- Hainbat lekutan konstituzioa aldatzera behartzera ere heldu da
 - o Espainian 135.artikulua aldatzea exigitu zen laguntza ekonomikoa jasotzeko.
 - o Aldaketa horretan honakoa zehazten da: aurrekontuen oreka da politikaren helburu nagusia; helburu nagusia kanpo zorra ordaintzea izango da.
 - Horren aurretik helburua oreka presupuestarioa da; ordea, zergatik behartuko da norbait hori azpimarratzera?
 - Aurretik konstituzioetan helburu hori beste batzuekin batera azaltzen zen
 - Ordea, hori helburu goren gisa jarrita, estatuaren subiranotasunaren negazio bilakatzen da. Ez baita onartzen lehentasunak aldatzeko aukera.

Nazioarteko merkataritza:

Txanpona (€) landutakoan azpimarratu genuen arazo batzuk sortzen dituela duen zurruntasunagatik. Gainera, aintzat hartzekoa da txanpona bateratu arren zergak eta beste hainbat faktore ez zirela bateratu.

Horrela, akats horiek nabarmendu egin ziren krisi garaian eta kalte larriak eragin zituen, bereziki, Europako periferiako lurraldeetan (prezioen igoera nabarmena, besteak beste).

Nazioarteko merkataritzak paper garrantzitsua izango du globalizazioan. Honen funtzionamendua arau batzuen arabera burutuko da, zeinak nazioarteko erakunde batzuek sortutakoak izango diren. Arau horiek ondorio ezberdinak eragingo dituzte.

Esan genezake nazioarteko merkataritza betidanik existitu izan dela. Halere, bi fase nagusi bereiziko ditugu:

- 1) 1945tik 70.hamarkadara arte: globalizazioa zabaldu eta nazioarteko harreman ekonomikoak areagotu egingo dira IIMGren osteko boomarekin batera.
- 2) 70.hamarkadatik gaur egun arteko fasea.

Bretton Woods eta arau amerikarrak:

IIMGren amaieran abiarazi eta Vietnamgo Gerra arte iraun zuen sistema bat izan zen Bretton Woods. Hainbat akordiotara heldu ziren Bretton herriko hoten batean bildu zirenek.

- AEBren hegemoniaren oinarriak finkatu ziren merkataritza globalean. Hots, Amerikarrak izango ziren merkataritza globalaren arauak jarri zituztenak. (Gogoratu Europa eta €ren kasuan Alemania izan zela hau burutu zuena).
- Amerikarren inposizio horren oinarria honakoa da: IIMGren amaieran, amerikarrek munduan inoiz izan zuten hegemoniarik handiena izan zuten.
 - o Izan ere, Europa suntsituta zegoen gerraren txikizioak zirela eta.
 - o Ondorioz, mundu osoko BPGren $\frac{1}{2}$ a AEBn zegoen. (Aipagarria da ekonomia igaro zela herrialdeen botere erakusle izatera; aurretik armada zen).

Amerikarren hegemoniaren zutabeak:

Esan bezala, bada, garai honetan hegemonia sortzen duena ekonomia da (aspektu militarraz gain); dirua, alegia. Dirua, hein batean, zientziak eta ikerketak dakar.

- Horrela, IIMGn industria, ikerketa militarrek eta abarrak asko areagotu ziren (adibidetzat dugu bonba atomikoa).
- Hortik aurrera, beraz, garapen zientifikoa izango da arauak ezartzen hasiko dena.

“Science, the endless frontier” izeneko txostenean, zientzialari batzuek AEBtako presidenteari planteatzen diote duen hegemonia mantendu nahi badu zientzia eta ikerketa sustatzen jarraitu behar duela.

- Gogoratu, ikerketa oro burutzen dela lehenik gerrarako eta gero doitu egiten dela bizitza normalean ere erabilera izateko (GPSa adibidez)

Gauzak horrela, AEBren lehentasunetako bat izatera igaro zen ikerketa zientifikoaren sustapena.

Testuinguru honetan munduan bi ildo nabarmenduko dira:

- Eredu Keynesiarra (Britainiarra)
- Bretton Woodseko eredua (Amerikarra)

Garai hartan (eta gaur egun arte) eredu amerikarra gailendu da.

Munduko Merkataritza Elkartea (OMC):

Elkarte hau estatuen arteko hitzarmenak sustatzen ahaleginduko da, beti ere merkataritza oztopatzen duten mugak kendu eta merkataritza bultzatze aldera. Hots, mundu mailako merkataritza erraztea du xede.

Ordea, EBren baitan aski zen arren, mundu mailan ez da nahikoa izango aduanak kentzea: beharrezkoa suertatuko da estatuen arauak harmonizatu eta estandarrak sortzea.

Arau horiek nazioarteko itunen bidez egiten diren arren, potentzia nagusien interesen arabera finkatuko dira.

Ordea, estatu ahul edo txikiagoen merkatu globaletik at geratu nahi ez dutenez, kondematuta daude inposatzen zaizkien arau horiek onartzera.

Halere, aurrerago ikusiko dugu nola afera hau maiz aberatsenen aurka itzultzen den .

Akordio horien adibidetzat dugu gaur egungo TTIP akordioa. Oro har, finkatzen diren arauen oinarria oztopoak kentzean datza. Hots, araurik sendoenak kendu eta malguagoak jartzen dira. Hala nola, zerga sistema edo langileen soldatei dagokienez.

Nazioarteko finantzak:

Estatu ezberdinen arteko harreman ekonomikoak (diru mugimenduak) sustatuko dira. Horiek Munduko Bankuaren edo FMI (Nazioarteko Fondo Monetarioa) baliatuz burutuko dira.

- **Banku Mundiala:** garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko. Prestamoak eman eta kredituak (pribatuek baina baldintza hobean) jaso ditzakete.
- **FMI:** estatuen arteko merkataritzak desoreka finantzarioak sortu ez ditzan ematen du dirua.

- Ordainketen balantzan aritzen da, alegia. Izan ere, harreman ekonomikoen ondorioz estatuak 1) Superabita, 2) oreka edo 3) Defizita izan dezakete.
- Aipagarria da harreman horietan AEBren hegemonia osoa emango dela. Bertan dagoen aberastasuna, hiperprodukzioa eta garapen zientifikoagatik. Gainera esportatzaileak dira, eta mundu mailako merkatua sortzen du AEBk hala bere produktuak saldu ahal izateko.

Sortzen den finantza sistema dolarraren indarrean eta dolar/urre erretserben arteko harremanetan oinarrituko da. Ordea, sistema horrek 70.hamarkadara arte iraungo du, eta erori egingo da gero.

Horrela, 80.hamarkada inguruan, estatu hegemonikoen mundu mailako merkataritza indarra galduko dute. Izan ere, merkataritza potentzia berriak sortuko dira: hiperesportatzaileak direnak.

- Hauek beren beharrak asetzeaz gain, beste estatuena ere ase ahal izango dituzte. Hasieran produktu merke, masibo, lanesku merke eta kalitate txarrekoak osatuko dute merkatu hau. Asiako estatuak izango dira, batik batik, potentzia berriak.
- Gerora, ikerketa zientifikoaren garrantziaz ohartuta horri garrantzia eman eta hainbat kasutan Asiako estatuak Europarren aurretik jarriko dira.

Horren ondorioz aldatu egingo dira merkatal balantzak: esan bezala nagusien zirenak ahuldu egingo dira (megasuperabit izatetik defizitario izatera ere igaroko dira).

8.GAIA: GLOBALIZAZIOA DESNAZIONALIZAZIO BEZALA. ESTATURIK GABEKO MERKATUA?

Nazioarteko Merkataritzaren gaian supranazionalizazioaren baitan kokatu dugun arren, harreman estua du orain lantzerantz goazen gaiarekin. Izan ere, egia da hainbat erakunde publiko internazional daudela Nazioarteko Merkataritzarako. Ordea, pribatizazioarekin bete-betean dago lotuta:

FMI, Banku Mundiala eta abarra nazioarteko erakundeak diren arren, bertako partaideak ekonomista ortodoxo neoliberalak dira, ekonomia kapitalistekin lotuta interes pribatuen babesaren arabera lan egiten dutenak.

2) DESNAZIONALIZAZIOA EDO PRIBATIZAZIOA

Gaur egun botere pribatuak (megaenpresak adibidez) ez dira soilik botere ekonomiko, botere politikoa ere badute. Hots, eurek hartutako erabakian ez dira ekonomia probatuaren erabakietara mugatzen, erabaki politikoak ere badira hein batean.

Noiz esan daiteke erabaki bat politikoa izan dela?

Bere erabakiak orokortasun bat dutenean eta, ondorioz, jende askorengan eragina dutenean.

Horrela, enpresa handi handi hauek gudan uste duguna baina eragin handiagoa dute. Makroenpresa horiek duten egitura maiz kritikatu egiten dugu, enpresen ohiko egitura dutela pentsatuz (hots, enpresari guztiak zaku berean sartzen ditugu). Kontutan izan behar dugu enpresa guztiak ez direla berdinak; are gehiago, enpresa batzuk ez dute bestetzuekin inolako zerikusirik.

Enpresa handiek ez dute enpresa txikiekin zerikusirik.

Gure buruan ditugun enpresarioak, enpresa txikiak dira. Enpresaren ugazaba dena, lotura bereziak dituena, bere ondasunak arriskatzen dituena.

Enpresa nagusiek ez dituzte ezaugarri horiek. Ez dago enpresario ugazaba bat, lotura berezirik duena ezta bere ondasunak arriskatzen dituena. Hori ez da ematen botere pribatu guneetan. Nolabait esatearren, estatu baten modukoak direla esan genezake, egitura erraldoiekin: bere gobernu, funtzionamendu eta abarra dute guk imajinatu edo ezagutzen ditugunekin inolako zerikusirik ez dutenak. Botere gune edo erakundeak dira, nahiz eta jabego pribatukoak diren.

MULTINAZIONALAK – TALDEAK – SAREA

Munduko enpresa gehienak multinazionalak dira; hots, estatu ezberdinetan daude zabaldua eta ez dute egoitza leku bakarrean. Ordea, multinazionalak burua leku jakin batetan izaten dute.

Multinazional gehienak enpresa talde bezala daude antolatuta (holding). Enpresa zentral bat + berarekin lotutako konglomeratu bat.

Buru bat + Enpresa sistema

Era berean, edozein estatutako enpresa nagusiak hartzen baditugu, konturatuko gara beren artean ere sarea osatzen dutela. Hori horrela izanik, enpresek hartzen dituzten erabakiak erlazionatuta daude.

Gainera, badaude pertsona batzuk zeinak, berez enpresa bakarreko parte izan, duten % hori dela eta baldintzatu egin dezakete beste enpresen jardun eta erabakitzea. Horrela, pertsona talde txiki batek (familia batzuk) sekulako botere ekonomikoa dute gaur egun.

Multinazional → munduan zehar. Taldeak → Antolatu zentral eta konglomeratua. Sarea → Gerora enpresa oro lotzen da bestetzuekin.

Enpresa hauen antolamenduak ez du inolako zerikusirik liberalismo ekonomikoarekin (nahiz horrekin justifikatzen dira maiz). Honek beste mundu bat bezala funtzionatzen du, beste logika batekin funtzionatzen duena: botere guneen logika, erakundeen logika.

Gaur egun munduko akzioen %80a 700bat enpresek kontrolatzen dute. Eta %40a 147 enpresek. Enpresa hauek, tradizionalki, beti izan dira amerikar edo europarrak. Gaur egun, ordea, Asiakoak ere izan daitezke. Horrela, badaude enpresa batzuk aberastasunaren zati handiena dutena, eta horrek jendearen bizia baldintzatzeko bide ematen die.

Munduan, aberastasunaren kontzentrazioa, imajinatu ere ezin dugu egin. Kapitalismoak, gaur egun lortu duen kapitalaren kontzentrazioa, ez gara gai noraino heldu den ulertzeko. (Kolokolak edangarri den uraren %12a kontrolatzen du).

Gainera, azken urteotan, batez ere 80.hamarkadatik hona (estatu sozialaren oinarri izango zen kontrola hausten da), gerraosteko ituna hautsi eta 2008ko krisitik aurrera bereziki, aberastasunaren kontzentrazioak haustura bat ekarri du. Aberastasunaren kontzentrazioak pobreziaren areagotzea dakar bai ala bai (lehen ez zen hori gertatzen, ezberdintasun sozialak urrituz zihoazen).

- Globalizazio teknologikoaren ondorioz mugak apurtu eta bloke komunistaren beldurrik ez dagoenez, kapitalismoa (domestikaturata edo zegoena) berriro ere basati bilakatzen da Europan.
 - o Estatuak gero eta murrizketa gehiago egiten ditu baina enpresetatik diru gutxiago kobratzen die. Hots, langileen zergetatik bizirauten du estatuak.
 - o Ad: aste honetan bertan erabaki da EAE orain arte elkarteen zerga %28tik %24ra jaistea. (Enpresa txikietan). Enpresa handien kasuan ez da zifra horretara heltzen, ingeniariaritzaren finantzarioaren ondorioz.

Kontzentrazioa:

Enpresen arteko kontzentrazio prozesua biderkatu egin da azken urteetan. Enpresa guztiak infiltratu egin dira beren artean, eta kapitala gero eta kontzentratuagoa dago gero eta esku gutxiagoan.

Lobby-smoa:

Erakunde, elkarte eta, bereziki, enpresek dituzten presio taldeak dira.

Enpresek, teoriak, merkaturan lehiatzen dute (merkatu librean, askatasunez). Praktikan, enpresa handi hauek, botereguneak dira. Horrek esan nahi du, hein handi batean, enpresa hauek ez dutela irizpide pribatuekin jokatzeko; hots, lotura zehatzak dituztela boterearekin eta gainera botere publikoa presionatu ohi dutela abantailazko baldintzak lortze aldera.

Lobby-en tresnak oso anitzak dira; milaka modu bidez egin dezakete hori. "El lehendakari viajó a tal país". Horrela, enpresarioek baldintza bereziak lortzen dituzte politikoengandik, beren negozioa hobeto joan dakien.

Espanian oraindik ez dago inolako Lobby erregistrotik. Ordea, beste estatuetan zerrenda batetan adierazi behar duzu hori eta zer nolako lana burutu nahi duzun adierazi behar duzu. AEBn adibidez 300-3000 lobby ditu diputatu bakoitzak.

- PP, Ciudadans eta PNV farmazeutika batera joan ziren.

Nazioarteko baldintzak:

Multinazionalak direnez, estatu ezberdinetan dituzte egoitzak eta estatu ezberdinetan bidera ditzakete beren ekintzak. Horrela, estatu ezberdinetara molda daitezke:

- Bertako Lobbyetara doitu
- Estatu ezberdinen arauetara doitu, beren interesaren arabera (inbertsioa, fiskalitatea, kontsumoa eta abar kontutan hartuta); interesatzen zaien legedira lotzen dira

Google espainia eta google irlandaren adibidea: ingeniariak finantzarioaren bidez. Ordea, produkzioa bideratu dezakete lan esku merkeena dagoen lekura.

Hots, laburbilduz, moldatu eta abantaila ateratzen diete baldintza konpetitibo hobek eskaintzen dituzten legedien arabera.

Estatuaren laguntzak:

Badaude bide edo modu asko estatuaren diru publikoa diru pribatu bilakatzeko. Adibidez:

- Lokalizaziorako laguntza: kanpoko inbertsioa erakartzeko, enpresei laguntzak ematen zaizkie herrialde jakin batetara etor dadin
- Ikerketa eta garapena eta innobazioaren izenean ere ematen dira laguntzak
- Lanak eta sektoreak enpresen mende utziak
- Enpresek dituzten zorrak barkatuz (Elektrikoei, 3 mila milioi euro barkatu zizkien aurreko gobernuak)

TRANSNAZIONALIZAZIOA, desnazionalizazioa

Pribatizazioa, oro har, enpresa transnazionalen esku (botere guneak direnak) gertatzen da.

Gaur egun ezagutzen dugun ekonomian, enpresak pribatuak diren arren, botere gune publikoekin harreman estua dute. Horrela, ekonomia ez da erakunde politikoetatik aparte mugitzen; hots, gaur egungo ekonomia botere publikoak babestutakoa izaten da (transnazionalak dute estatuen babes).

Estatuaren babes hori dela eta, gaur egungo kapitalismoari, kapitalismo klientelarra deritza.

Nola laguntzen ditu Estatuak enpresak?

Era ezberdinetan egin daiteke hori.

- *Legeen bidez:*

Lege bidez arautu eta legeztauz enpresentzat babesak sortzen ditu; hots, enpresen eta enpresa berezien interesen aldeko joera duten araudiak egiten dira. Izan ere, araudi horiek Lobby-en presiopean egiten dira maiz. Horrela, legegileek egindako arauak ez dira interes orokorrean oinarritzen.

- *Laguntzak:*

Estatuek enpresei laguntzak ematen dizkiete. Batzuetan interes orokorra darabilte arrazoituz (enpresari gazteen kontratazioa, kooperatibismoaren sustapena). Ordea, beste batzuetan, interes orokorrarena aitzakia hutsa da.

Laguntza ekonomikoak emateko moduak ugariak dira:

- Batzuetan ez zaie dirua ematen. Baldintza egokiak ematen zaizkie lokalizazioa sustatzeko. Estatuak kanpoko enpresak erakarri nahi dituztenez, abantailazko baldintzak eskaintzen dituzte (lurrekiko, zorrekiko eta abar) . Horrela, zeharkako laguntzak eskaintzen dituzte erraztasun horiekin.
- Beste batzuetan diru publikoa bideratu egiten da enpresa pribatuetara. Esate baterako, EBn, AEBtako hegazkin proiektuek duten indarraren aurka jotzeko, dirua bideratzen zaie Europar Hegazkinak sustatzen dituzten enpresa pribatuei.
- Dirua bideratzen zaie, besterik gabe, lanpostua sortu edo mantentzearen aitzakiarekin. Zuzenean bideratzen zaie diru publikoa.

- **Kontratazio publikoa**

Beste diru kopuru handi bat kontratazio publikoen bidez mugitzen da. Izan ere, gaur egun estatuak diru asko darabil errepideak, komunikazio- eta energia-sareak eta antzekoak sortzeko. ekimen edo lan horiek burutzeko enpresa pribatuei eskaintzen dizkie Estatuak. Horrela, kontratazio publikoaren bidez laguntza ematen zaie enpresa bereziei.

Errepideak egiteko, adibidez, askotan baliatzen dira botere politikoarekin ongi moldatzen diren enpresak, laguntxoaren enpresak; hots, kontratazio publikoa ez zaio edonori ematen; baldintzatuta daude.

Baldintzapen hori truku edo modu ezberdinen bidez burutzen da:

- Baldintza merkenak edo preziorik baxuena eskaintzen duenari ematen zaio kontratu publikoa. Jakina izango da prezio baxu hori ez dela errealia, baina, laguntxoarena denez, berari ematen diogu. Gerora, prezio altuagoa justifikatuko da, ustekabeen moduz.
- Konkurtso publikoen kasuan, konkurtsorako baldintzak, laguntxoaren enpresaren baldintzetara doituta zehazten dira.
- Beste batzuetan zerbitzua sortu baino aurretiaz laguntxoei esaten zaie enpresa bat sor dadin hori kudeatzeko.

Honengatik guztiarengatik deritzo gaur egungoari kapitalismo klientelista (amigismoan oinarritutakoa)

- **Diplomazia ekonomikoa:**

Botere politikoak erraztasunak ematen dizkie enpresa batzuei beren proiektuak aurrera eramanez, besteak beste. Oro har, enpresen interesen alde egiten dute.

- **Enbaxadore eta abokatuen bidez:**

Maiz bidaiak antolatzen dira (erregearenak, agintarienak eta abar) bertako enpresa garrantzitsu batek beste estatu bateko zerbitzuren bat garatu nahi duelako.

- **Patenteen bidez:**

Farmazeutika industria dugu adibide argizat. SIDAren ikerketan, adibidez, estatu baten produktuen defentsan beste estatu batzuen ikerketa debekatu edo oztopatzeko tribunaletara jo dezakete. Horrela, estatuak beren industrien patenteak babesten dituzte (lehian lagundu) eta, dirua bideratzea justifikatzen dute hala.

○ ***Kiebrarik eza***

Kiebraren kontrako laguntzak igortzen zaizkie enpresei. Teorian enpresek beti dute arrisku bat (hots, beren ordainaren zati bat arrisku horiek hartzeagatik izaten da). Arrisku horiek gainditu ezin baditu (zorrak ordaindu ezin baditu, alegia), porrot egiten duela edo kiebran erortzen dela esan ohi da.

Ekonomia librean (zeinetan estatuaren esku-hartzerik ez dagoen) enpresek kiebra egin dezaketen arren, errealitatea oso bestelakoa da eta enpresa txikiek soilik izaten dute porrot egiteko arriskua. Izan ere, enpresa txikien kiebra pribatu mantentzen da uneoro. Ordea, enpresa handiek porrot egiten dutenean beren zorra sozializatu egiten da. Hori egiteko lanpostuen edo kontsumitzaileen babesaren gisakoan darabiltzate.

○ ***Kanpoko lehiakortasuna mugatzea:***

Hau burutzeko tresna edo bide ezberdinak balia daitezke. Ordea, estatuak teoriarik merkatu edo konpetentzia librearen alde daudela esan behar dutenez edo, neurri protekzionistak hartuko dituztela esan ezin dutenez, hainbat aitzakia erabiltzen dituzte:

- Osasunerako kaltegarriak direla esanez produktu jakin batzuen inportazioa murrizten da
- Arau teknikoak (estandarrik) doitu kanpoko enpresek bete ezin izan ditzaten
-

Esan bezala, bada, horregatik guztiagatik deritzogu gaur egungoari KAPITALISMO KLIENTELARRA: enpresa batzuk botere publiko edo politikotik abantailak eskuratze bidez garatzen baitira (eta ez teoriako liberalismo ekonomikoak planteatzen duen lehia libregatik soilik).

Aipagarria da autore batzuen esanetan “kapitalismo klientelar” kontzeptua bera redundantea dela; hots, praktikan kapitalismoa klientelismoan oinarritzen dela diote eta ez dagoela munduan liberalismoan oinarritzen den sistema kapitalistarik.

ERAKUNDE KONTSULTIBOAK

Mundu mailako erakundeak dira, teoriarik, ekonomiaren nondik norakoak aztertu eta aurrera begirako gomendioak emateaz arduratzen direnak: G8, G20, Foro de Davos ...

Erakunde hauek teoriarik teknikoak diren arren, praktikan modu neoliberallean jokatzeko dute.

ESTATURIK **GABEKO** MERKATUA?

Kontu ezberdina dira teoria eta praktika; horrela, ezberdina da legeetan esaten dena eta boterearen benetako funtzionamendua.

Estatu sozialean, estatuak ekonomia kontrolatzeko zituen tresnak indargabetu diren arren, estatuak ez du bere papera galdu eta estatu/merkatu arteko oreka da, beraz, estatu sozialaren oinarria.

Gaur egun (estatu kapitalistan) estatuak ez du merkatua murriztu edo kontrolatzeko tresna gisa funtzionatzen: estatua merkatuaren tresna bilakatu da; kapitalismoaren tresna.

Horrela, gaur egungo kapitalismoan ez dago estatu eta merkatuaren arteko orekarik; hots, ez dago politika eta ekonomiaren arteko orekarik (ekonomia inposatu egin da eta estatuaren gaineko tresna da).

Hori agerian geratzen da kapitalaren internazionalizazioaren adibidearekin: kapitala globala bilakatu da; ordea, lana ez (nazionala da, ezin dira langileak nolnahi mugitu). Horren ondorioz estatuen erakundeak kapital metaketarako tresna bilakatzen dira.

Gaur egun demokraziaren helburutzat jotzen da merkatuaren mantentzea: eztabaida politiko guztietan inposatzen den ideia da. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da legiaren ideia.

Non dago boterea gaur egun?

Globalizazioa prozesu bat dela esan dugu lehen; horrenbestez, ezin da zehaztu non dagoen boterea. Halere, badira boterearen kokapenez mintzo diren pentsalariak.

*Antonio Negri*ren arabera, gaur egungo mundua inperio bat da. Horrela, ez daude interes nazionalak eta berdindio non jokatzeko den.

Beste hainbat teorizazio ere badaude, baina zehaztu ezinak dira. Botereak estatu bakoitzaren baitan nola jokatzeko duen soilik ikus dezakegu:

- Estatu soziala beste estatu baterantz eboluzionatzen doan estatua da. Legeetan estatu interklasista lez azaltzen da (langile eta burgesen arteko interesez arduratzen dena). Halere, gaur egun, egiten diren politiken lehentasunak asko aldatu dira.

Ditugun estatuetan funtzionamendu berberak mantentzen dira. Ordea, dauden helburu politikoei lehentasunak aldatu egin dira: batzuk helburu nagusi izatera igaro dira eta tresnak mantendu dituzte; bestetzuk ordea helburu funtzionalak dira. Horrela, gaur egun estatuaren helburu nagusia merkatuaren lehiakortasunaren mugen baitan mantentzea da, eta ez ditu ez ekonomia ezta gizartea bera ere helburutzat jotzen.

Estatuaren helburuen ez dute kontraesanetan sartu behar. Horrela, merkatu globalaren nagusitasuna legeen edo konstituzioa beraren bidez bideratzen da.

Gaur egun egoerak ez du apenas alternatiba zehatzik (nahiz eta ugariak diren joera hauen aurkako mugimenduak). Globalizazioaren aurkako alternatiba lez izenda genitzake honakoak.

Bi motatako fenomenoak daude:

- Fenomeno retroak: gaur egungoa gustatzen ez zaigunez estatu nazionaletara itzultzea proposatzen dutenak. Hemen kontrol bidez protekzionismoa sustatuko da, lekuan lekuko merkatua babestuz.
- Altermundialistak: hauen esanetan estatuen artean edo maila internazionalen zerbait egin beharko litzateke. Boterea globala bihurtu da, eta erantzunak ere halakoak izan beharko dira; hots, kontraboterea globalki antolatu behar da. Gaur egun ideia hau ez dago oso garatuta, baina badira honako joera duten hainbat talde. Hala nola Foro Soziala izenekoak, zeina Foro Ekonomiko Mundialaren alternatiba izatea duen xedetzat.

Mugimendu asko dauden arren, guztiak ez daude helburu bererantz bideratuta.